



**Lore eta landare azoka
Seguran**

**Gazte taldeentzako
lokalak Beasainen**

**CAF: abiadura handiko
75 tren egiteko
kontratua**

Migdaïla 

Tel. 943 027 363 • Oriamendi, 29 • 20200 Beasain • Gipuzkoa



KONPLEMENTUAK
 MODAK AZKEN TENDENTZIAK
 EMAKUMEZKOAK - GIZONEZKOAK
 ASESORAMENTU PERTSONALIZATUA





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aitziber Murua, Aimar Maiz, Ion Muñoa, Iñaki Ugalde eta Manex Aranburu.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gerta (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.100 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

*GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.*



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Jakintza ikastolako abesbatzak diskoa kaleratu du

Juanita Amundarain andereño zena omendu dute

Otsailaren 25ean, Ordiziako Jakintza abesbatzak bere lehenengo diskoa aurkeztu zuen. Dena den haur kantariez gain, beste protagonista bat ere izan zen: 1999an auto istripuan hil zen, Juanita Amundarain andereñoa.

1999. urtean sortu zen Jakintza abesbatza, Juanita Amundarain bertako irakasle zenaren omenez. Juanitak bere egunean euskal kantak bultzatzearen hasi zuen lanari ekiteko asmoz sortu zen abesbatza. Debora Herrero darama abesbatzaren ardura. 9 eta 16 urte bitarteko 16 haurrek osatzen dute abesbatza. Kontzertu ugari eskaini izan dituzte bai Euskal Herrian eta baita atzerrian ere. Haurren motibazioarako argitaratu dute 17 kantuz

osatutako diskoa. Euskal kantak eta munduko kantak entzun daitezke bertan.

6 eurotan dago salgai diskoa, Ordiziako Bideo Klubean, Fernando frutadendan eta Eroskin.

Diskoaren aurkezpen ekitaldian, Juanita Amundarain zena omendu nahi izan zuten Jakintza ikastolakoez, oso andereño maitea izan baitzen. Garazi, Itxaro eta Elorri alabek, lora sorta eta disko bana jaso zuten. Ilusio handiz hartu zuten disko berria eta eskerrak eman zizkien guztiei, beraien amaren lanari jarraipena emateagatik. Izan ere, Juanita Amundarainek, euskal kantugintza oso gustuko zuen eta bera ere abesbatza batean kantuan arituta izan zen.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:

urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa:

urtean 24 euro

Europaz kanpo:

urtean 36 euro

'Goierri: Parke Naturala eta Kulturala' lemapean, gida eta mapa turistikoa aukeztu ditu Goiturrek

Goierriko Garapen Turistikorako Egitasmoaren barruan, Goierriko gida eta mapa turistikoko berriak aurkeztu zituen Goiturrek, martxoaren 5ean, Ataunen. Eskualdeak dituen errekurtso eta argumentu turistikoko desberdinak laburbiltzen dira bertan (arte, kultura, historia, festak, tradizioak, natura, turismo aktiboa, gastronomia, alojamentu desberdinak, eskualdeko museo eta interpretazio zentroak eta Goierriko turismo bulegoak).

Gida turistikoa

Gida turistikoa berri honi esker, turistak edo enpresetako bisitariak, Goierriko informazio guztia aurkituko du gida bakar batean. Goierriin egin daitezkeen ibilbideak aurkezteaz gain, eskualdeko adierazgarri diren elementu eta argumentu turistikoa eskaintzen dizkio Goiturrek turistari. Aurkezpenean Niko Osinalde Goiturreko kideak adierazi zuenez, "Goierriko promozio turistikoa beste urrats bat eman nahian, gida turistikoa hau eta mapa turistikoa



Angel Irastorza, Diputazioko Turismo zuzendaria, Bittor Oroz, Ataungo alkatea; Koro Garmendia Jaurlaritzako turismo sailburuordea eta Nikolas Osinalde.

desberdindu ditugu: gida honekin Goierri saldu nahi da gure eskualdetik kanpo irudi eta sinbolo batzuen bidez, hau da, Goierri destino turistikoa bezala aurkeztu nahi dugu, eta horregatik, erakargarriak diren argazki eta edukinak erabili dira". Euskaraz, gazteleraz eta katalaneraz argitaratu da gida berri hau.

Mapa turistikoa

'Goierri: parke naturala eta kulturala' lemapean kaleratutako Goierriko mapa turistikoa, turistak eskatzen duen

informazio praktikoa sartu nahi izan da. Bere helburua, eskualdean dagoen bisitariaren zalantza eta galderei erantzutea izango da. "Turista Goierriara etortzea lortu dugunean, gure lurraldean zehar mugitzeko behar duen informazioa eskura emango zaio". Zerbitzu eta alojamentu desberdinen zerrenda, museoa, interpretazio zentro eta interesguneen ordutegiak eta prezioak, eta turismo bulegoen eta informazio puntuen ordutegiak eta kokapenak zehazten dira mapa turistikoa.

Liburuen orri margakagailuak

Zegamako 'Liñue Zegama' ehungintza tailerrekoek egin dituzte liburuen orriak banatzeko balio dituzten oihaltzaketak. Plastifikatuta, www.goierri.org helbidea txertatu da bertan. Promoziorako elementu berri honekin Goierriko web orrialdea turista eta bisitariengana gerturatu nahi du Goiturrek. 5 hizkuntzatan dago web orria. Osinaldek emandako datuen arabera, %51,7ak, internetetik jasotzen du informazioa.

Goierri eredugarri

Ataungo aurkezpenean, Angel Irastorza Turismo zuzendariak zoriundu egin zuen Goitur, barneko turismoaren barruan Goierri egiten ari den lanagatik. Irastorzak emandako datuen arabera, Gipuzkoako turismoan, Donostiaren ondoren dago Goierri, kostaldearen aurretik. Koro Garmendia sailburuordeak bere aldetik, erronka bat bota zuen: ea turistak egun gehiagotan izatea lortzen den.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Goierri zuri-zuri

Otsaileko azkeneko eta martxoko lehen egunetan, Goierriin elurra izan zen protagonista. Azkenaldian ez dugu horrelako elurterik izan eta batez ere txikinek, gustura hartu dute elur-raren bisita. Oztopoak oztopo, paisaia zoragarriak ikusi izan dira.

Aceralian langile bat hilik

Olaberriako Aceralia Perfiles enpresan langile bat hil zen otsailaren 24an, kamioiko karga gainera erorita.

Nikolas Lekuona ordiziarraren obra Madrilen

Nikolas Lekuona (1913-1937) Ordiziako artistari buruzko atzera begirako erakusketa Madrilgo Reina Sofia museoa dago ikusgai, maiatzaren 31ra arte. Aurretik Gasteizko Artiumen egon zen. Lekuonaren 100 bat lan biltzen ditu erakusketak: 61 argazki, 24 argazki muntaia, 18 marrazki, 21 margo eta Lekuonaren 50 objektu. Nikolas Lekuonaren obra, garaiko abangoardiei oso lotuta egon zen.

Karlos Gimenezek

'12 geltoki' diskoa aurkeztu du

Karlo Gimenez pianjoleak atzo aurkeztu zuen Bilbon '12 geltoki' diskoa. 12 pieza instrumental bildu ditu Gimenezek, pianorako berak sortu eta interpretaturiko 12 konposizio. Elkar argitaletxearen 'Laida' azpizigiluaren barruan kaleratu da eta lana definitzen zaila dela esan zuten aurkezpenean: "*klixen guztien gainetik emozioak sortu nahi izan ditu eta esan genezake zinez lortu duela*". Esperientzia handiko musikaria da Karlos Gimenez. Interpreta bezala euskal kantari eta talde ezagunen zuzeneko emanaldietan parte hartu izan du (azken garaian Belardi taldearen partaide dugu), eta horrezaz gain, musika konposatzen, moldaketak egiten eta produktore gisa ere hamaika lan egina da.



Loinaz T.E.ko txirrindularien neguko denboraldi bikaina

Bai ziklo kros eta baita pistako denboraldi bikaina egin dute Loinaz T.E.-ko txirrindulari gazteek. Jon Izagirrek Gipuzkoa eta Euskadiko ziklo kros txapelketak irabazi ditu eta Julen Gonzalezek Gipuzkoako txapela lortu du pistako scrach modalitatean. Haez gain Pedro Usabiaga, Gari-koitx Bravo eta Beñat Mintegi ere maila onean aritu dira.

Apalantzak irabazi zuen Gabiriako rallysprinta

Otsailaren 29an zen jokatzekoa Gabiriako VI. rallysprinta, baina egindako elurra zela eta martxoaren 7ra atzeratu zen. Eguraldi ona lagun milaka ikusle inguratu ziren Gabiriara. Irabazlea Ramon Apalantza izan zen Mitsubishi autoarekin, bigarrena Luciano Arrabal izan zen, hau ere Mitsubishirekin eta podiuma osatuz Xabier Alustiza izan zen hirugarrena Seat Ibiza autoarekin. Informazio gehiago Gabiriako kronikan duzue.

Olaberriako zirkuituko saria

Otsailaren azkeneko egunetako elurteak hala behartuta, atzeratu egin behar izan zen Olaberriako zirkuituko autoen lehiaketa. Bihar, martxoak 13, jokatu da.

Alaves futbol taldea Beasainen entrenatzen

Elurraren ondorioz, Alavesek ezin izan zuen ohi bezala Ibaian entrenatu. Hori dela eta, martxoaren 3an eta 4an, Beasaingo Loinatz futbol zelaian aritu ziren hurrengo partidua prestatzen. Beasaindarren arreta erakarrira, ikusle dezente izan zen Alaveseko jokalariek gertutik ikusteko asmoarekin.

Xabier Mendiguren 'Arbelaren gainean' liburu idazleari gutun irekia

Zuk idatzitako liburua, "Arbelaren gainean", irakurri ondoren, Sarasola familiari buruz egiten dituzun adierazpen okerrak zuzentzera gatozkitzu.

1. Gure familiak zintzotasun osoz jokatu zuen horrenbeste lanpostu izan zituen lantegia sortzen, handitzen eta zuzentzen. Familiak zituen baliabide murriztekin ia 100 urte iraun zuen lantegiak.

Bestalde, ez da egia 150 langile zeudenik pizartegia itxi zenean, baizik eta 50 inguru, eta adierazi lantegiak irekita iraun zuen bitartean gure familia ez zela aberastu, are okerrago, gure aitak zorrez josita amaitu zuen. Inolako ondasunik gabe amaitzen duen enpresari batek, enpresa irekita mantentzeko ahalegin guztiak egin ondoren, ez du merezi jauntxo edo erdi-exploatzaile bezala tratatzerik, liburuan agertzen den moduan. Hori bai, gure aitak ahalmena eta ardura izan zuen bere seme-alabek ikasketak izateko eta euren iharduera profesionalak Pizartegitik kanpo izan zezaten.

2. Gurutz gure anaiari, hurbi-letik ezagutu genuenok, ez diogu inolako antzik hartzen liburuan irudikatu dutzun mutil guri eta ezegonkor horri, bere bizitza moztera eraman zuena. Errespetoa eskatzen dugu, zeren, ezin dira bota liburu baten horrelako arinke-riak.

3. Gutxiengo batzuk bete behar dira pertsona edota familia baten inguruan liburu bat argitaratzeko, eta gutxiengo garrantzitsuenetako bat, informazio-iturri sendoa izatea da, zuk bete ez duzuna, zeren ez zara arduratu gure familiarekin kontrastatzen. Alderantziz, aipatzen dituzun informazio-iturriak ez dira erabat zuzenak; Iñaki Seguirolarena, 1996ko Ostie-lan topikoz josita argitaratu zuen artikulua (berari kopiatu diozu guri hitza), eta guk idatzi batez erantzun geniona, eta Iñaki Larrañaga, apaiza, soziologo ona behar bada, baina, ekonomilari edo enpresari bezala ezjakina, lantegia-ren egoera larria eta haren ixtea misiolari bokazioarekin nahastu zuena; ez ordea Jon Aranorena, gure ustez berak egin duen lana serioa baita.

Kelmen Sarasola Martinez

Eroski vs euskara

Lerro hauen tituluan jarri dudana "vs" ordez "aurka" jarriko ote nuen egon naiz. Bego idatzia bere horretan.

Duela aste pare bat beste idazkitxo bat idatzi nuen Berrian, gaurkoaren ildo bertsutik, Eroskiren otsailaren 12ko koadernotxoa, ia erabat gaztelaniaz emana, salatzeke.

Gaurko nire honetan Eroskiren otsailaren 26/ martxoaren 13a bitarteko eskaintza dakarren koadernotxoa hartu dut abiapuntu.

Oraingo honetan aurreko hartan baino euskara gutxiago (gauza erraza ez bada ere) dator. Euskaraz bizi nahi dugunontzat benetan probokatzaileria, iraingarria, lotsagarria.

Probokatzaileria! Hain zuzen ere, nire ahaltxoaren arabera, probokazio horri erantzutera datoz lerro hauek.

Uste dut, horrelako probokazioen aurrean ezin gera gintezkeela besoak gurutzaturik. Zer egin, ordea?

Bada korrante soziologiko bat hau dioena: kontsumitzaile morroi/mirabea dela, produktorea (gure kasu honetan, enpresa komertziala) tiranoa delako.

Bada, ordea, besterik uste duenik ere. Kontsumitzaileek indar handia dutela. Joka dezaketela salgai baten edo bestearen alde nahiz kontra. Kontsumitzaile-talde batek (erabatekoa ez bada ere), enpresa jakin batek era egokian ez duela jokatzeko uste badu, sor dezakeela delako enpresa horren aurkako irizpen publiko negatiboa. Eta enpresak oso sentibera izan ohi direla horrelako jokabidearekiko; batez ere, hortik letorkiekeen galerarekiko. Hitz batean esanda, salgai bati nahiz en-

presa bati boikot masiboa egin dakiokela.

Beraz, erosleek badute gaitasunik enpresa baten funtzionamenduan eragina izateko. Kontua da, honen antzeko galderak egiteko gai izan behar dugula: nori/zeini erosiko diot?, zergatik?, etab.

Enpresek ez dute berenez aldatuko beren joera. Baina aurrean benetako mehatxu bat ikusten badute, zer pentsaturik eta zer aldaturik sumatuko dute. Bada horrela jokatu eta arrakasta lortu duen GKE edo talderik. Gogoan hartzekoa da, adibidez, "Pascual" esnearekin Katalunian gertatu zena: 2003. urtean 'Pascual' esne-enpresak ganaduzale katalanei esnea erosteari uztea erabaki zuen; kontsumitzaile katalanek egin zioten boikota hain handia izan zen, non handik egun gutxira katalanen esnea erosten jarraituko zuela erabaki baitzuen.

Horiek horrela, euskaraz bizi nahi dugunok zergatik ez genioke aurre egingo Eroskiri? Beste enpresek berdin jokatzen dutela? Bai horixe! Baina ezin diegu denei batera aurpegi eman, erosteari utziz. Aipatu dudana aurreko nire idazkitxoan nioenez, ez nago prest Buridanen astoarena egiteko. Eta zergatik Eroskiri, hasteko. Izenez eta jatorriz bertakoa dugulako eta bertakoei, logika arruntan, gehiago eskatzen ahal diegulako.

Hor doa enbidia Kontseiluari nahiz Euskal Herrian Euskarazi nahiz antzeko beste erakunderen bati zuzendua.

Ni neu hasia naiz zer bide har dezakedan Eroskiren paper-zaborraz etxeko postontzia beterik ez ikusteko.

Dionisio Amundarain

Aitonaren baserriko esnea

Orain 25 bat urtera arte, Goierriko eta orokorrean Kantaurirantz isurtzen duten lur eremuetan sakabanaturik antolatzen ziren baserriek -15 hektareako hedadura izaten zuten, eta batzuek 5 - 15 edo gehienek 25 abelburukoak izaten ziren, beti lur hedadura eta etxebizitzak eskaintzen zuen lekuaren arabera egokituak. Bertan abererik garrantzitsuenak esne behia izaten zen, errentarik interesgarriena (gehiena) bertatik sortzen baitzen. Dena den beti izaten ziren larre behi edo gizentzera bideratutako txekorrak, bai oilasko, eta txerriren bat; kasuak kasu, oilo, ardi, ahuntz, untxi...eta hauekin, gizakiak beretzat egiten zuen baratz eta sorroan, etxeko abereen elikagai izango zirenak ere lantzen zituen, belartziekin batera, hauen elikadura osatuz. Aldiz, jasotzen zuen simaurrari esker, berriro baratz, soro eta belardi horiek ongarriz, ziklo orekatsu eta iraungarria barneraturik bizi zen.

Horrela izandu zen mendeetan zehar eta esan bezala, orduztik 25 urte pasa dira. Zein da gaur egungo egoera?, zer gertatu da azken urteetan?. Aldaketa IKARAgarria izan da, IZUgarria, BELDURgarria. Oso denbora laburrean, 2 hamarkada besterik ez, eta intensifikazioa iristearekin, ekoiztea lehenestearekin, jadanik 96 - 2000 bitartean %41 baserriak jarduera bertan utzi dute, eta baserria etxebizitza soilak bilakatu da gehiengoetan. Baserria zabaldu beharragatik sortzen ziren eta diren inbertsioak poliki-poliki geroz eta baserri handigoak bazterratzen ditu. Horrela, 7 - 11 esne behi zituzten baserriak zeharo desagertu dira, egun hortik ez dago bizitzerik. Besteak, esfortzu dezentea ginez 25 - 35 burutara pasa

ziren... hauek ere eutsi ezinik, gutxiengo bat dira. Denborarekin, baserriari eutsi nahi horretan, inbertsio eta subentzio jokoan murgildurik, elkarrekin sortuz, lurrak maiztertzen hartuz, bakar-bakarrik esnetara dedikatuaz, 65 - 85 bat esne behiekin dabilzanak ez dira Goierriko doza erditik pasatzen. Harrigarriena oraindik bizi irautea da, izan ere orain 15 urteko errenta berbera lortzeko abel kopurua hirukoiztu behar izan baitute. Denborarekin bizi maila igotzearekin egoera jasangaitza bihurtzen da. Inbertsioak justifikaziorik gabe geratzen dira, eta subentzioen arimoan aurrera egiten duten baserriak jarduerari lotuak geratuz, lanak gizakien ahalmenak gaindituz...uztarritik dabilza!.

Jada ez dago sororik, baratzarik bada, etxeko zaharrei esker daude, eta belardiak, janaria lortzeko baino, 80 behiek, urte osoan ikuluraturik geratzeagatik, pentsua eta siloa jenez sortzen duten "simaurra", irensteke, non bota izateko erabiltzen dira. Baserriak pabiloi industrialak biltzen, ez dute lurrarekiko binkulaziorik, ez zer ikusirik.

Gure baserria...Zer esan?, kultura galtzen, paisaiak ezkerri eraldatzen, lurraren bizi itzalduaz, natur baliabide eta gizakien arteko harremana ahultzen doa. Egundak da somatzen ama lurrak eskaintzen dituen fruituen beharrik, egarrik, eta inor bada, go, behiak agian?, super pentsuaz nahasturiko "jakiez", egunero etortzen den kamioiak despistatu ditu.

Gure kultura honetan, oinarritzko elikagai dugun esnea, nekez aurkituko dugu frexkoa, egunerokoa, behiak zuzenean jetzi eta bildutakoa. Tamalez, esnezaleen eredu honekin, gure herriko errealitate txiki baten islada izanik, badira oraindik egoeraz jabetzen ez direnak, eta esnea 65 pezetatan tetrabriekoa erostea nahiago dutenak, ustez bizi kalitate hobetagoa dugulakoan, ingurugiroaren alde borrokatuz.

Ingurugiroa babesteaz, bizi kalitatea hobetzeaz hitz egingo badugu, zenbait galdera erantzunez hasi beharko ginateke: Zergatik desagertu da aitonen baserriko esnea? Tetrabriekoa esnea (egun erosketak eskaintza bakarra) al da kalitatezko bizitzaren adierazle?

Manex Aranburu

"Herri baten identitatea eta nortasuna, bere erroetan elikatu eta oinarritzen da"

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

LIBURUA

✓ **"El gran negocio de los residuos industriales en Euskadi: entre la codicia empresarial y la negligencia de la Administración".** Sagarrak- Basauriko Talde Ekologista eta Ekologistak Martxan. Liburu honetan, EAEko industria hondakinen inguruko negozio ilunak daramazkiten botere taldeak ezagutzera ematen dira eta baita talde horiek hondakinen minimizazioarako neurriak ez hartzeko egindako presioak.

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Transgenikoak:** Europar Batasunak ez du bt11 arto transgenikoaren merkaturatzea (inportazioak) onartu. EHNEK eta beste gizarte eragileek bultzatutako kanpainak eraginkorrak suertatzen ari direla adierazten du erabaki honek, sindikatuaren aburuz.

✓ **Pestiziden erabilpena EAEn:** Eusko Jaurlaritzako Osalanek EAEko 70 baserrietan pestiziden erabilpena eta zainketari buruzko ikerketa burutu du. Emaitzek adierazi dute pestiziden erabilpena (eskularru, maskara, eguraldia, dosiak...) zein zainketa (etiketa ikusgai, biltegiratze baldintzak...) baldintzak ez direla egokiak.

✓ **Zuhaitz bat bota denean,** mendian bere enborra izan zenaren beheko zatia gelditzen da: Motzondoa. Motzondo horretan ikusten diren eraztunak zenbatzen baditugu, zuhaitz horrek bota zen garaian zuen adina izango dugu.

Abiadura handiko 75 tren egiteko eskaria jaso du CAFek

Renferentzat abiadura handiko 75 tren egiteko adjudikazioa lortu du CAF-ek, baita hauen mantentze lanak datozen 14 urtetarako. Guztira 1.695 milioi euroko adjudikazioa da, CAF eta Alstom-ek osatzen duten partzuergoarentzat. Adjudikazio berri honekin CAFek gutxi gora behera 2.500 milioi eurotako eskarien kartera du momentu honetan.



de, denak motoreak, trazio elektrikokoak eta 4 megawatioko potentziarekin. Zerbitzuan daudenean 250 km/h gehienezko abiadura aurreikusia badago ere 275 km/h

baino gehiago hartzeko prestatuak daude.

Trenbideen zabalera ezberdina ez da tren batek abiadura handiko eta ohiko trenbideetan ibiltzeko gainditu

behar duen zailtasun bakarra. Bi trenbide motak tentsio elektriko ezberdina dute, trafikoko kontrol sistema ere aldatu egiten da, trena eta agente postuaren arteko komunikazioa bezalaxe. CAFek egiten dituen abiadura handiko trenbideen 25kV-ko tentsioarekin eta ohikoetako 3 kV-ekoarekin ibiltzeko daude prestatuak, baita kontrol eta komunikazio sistema ezberdinekin jarduteko ere.

Adjudikazio berririk ez

Aurreko astean Renfek abiadura handiko 40 tren adjudikatu zituen eta CAF kanpoan geratu da. Oraingoan Talgo eta Siemens-entzat izan dira.

Mozkinak gora etengabe

2003. urtean CAFen mozkinak edo irabaziek %18an egin zuten gora. Salmentak 495,5 milioi eurotakoak izan ziren, aurreko urtean baino %26a gehiago. Salmenten %54a esportazioak izan ziren. Eskaera-kartera 1.590 milioi eurokoa izan zen, 2002an baino %14,2a gehiago. Kontratazioari dagokionez, 693,9 milioi eurokoa izan zen.

Mundura zabalik

CAFek dituen bi ildo estrategiko nagusiak, internazionalizazioa eta garapen teknologikoa, emaitza onak ari dira ematen. Hainbat herrialdeetan aurrera eramaten ari den proiektuen martxa onari eskaera-karteraren etengabeko hazkuntza gehitu behar zaio. Momentu honetan mundu zabaleko hainbat eta hainbat herrialdeetan dabilta CAFek egindako trenak:


Hungarian abiadura handiko trenak; Holandan, Amsterdameko metroko linea bat; Erresuma Batuan, Heathrow eta Paddington arteko trena eta Leeds-ekoa; Finlandian, Helsinki inguruko lurrazpikoa; Hong Kongen, hiria eta aireportu artekoa eta metro linea bat; Portugalen, bi solairuko aldiriko trena eta hiriko tranbiak; EEBBetan, Washington eta Sacramento-ko metroetan; baita hainbat metro linea Mexiko DFn, Monterreyn, Brasilen eta Argentinan ere, azken bi horietan aldiriko hainbat tren ere badabilta. Internazionalizazio estrategia honetan, azken lorpena, Dublino hiri barneko tren dieselak izan dira.

Momentu honetan ondorengo proiektuak ari dira burutzen, bai fabrikazio edo diseinu fasean: Renferen abiadura handiko trenak eta Mexikoko, Erroma, Sevilla eta Bruselako metroak.

Renfek Alstom-CAF partzuergoari adjudikatu dizkion 75 abiadura handiko trenetatik 30, orain arte egiten dituen antzekoak dira, orduko 250 km-ko abiaduran ibiliko direnak. Beste 45, CAF-ek patentatutako Brava sistemadunak dira. Sistema honekin Espainian dauden bi neurritako trenbideetara automatikoki egokitzen dira trenaren gurgilak.

Oraintxe bertan Brava sistemadun 12 abiadura handiko tren ari dira egiten CAFen eta Calatayud-Zaragoza-Jaka-Huesca linean ere martxan dago sistema hori.

Abiadura handiko Brava trenak 4 kotxez osatuta dau-



Aulia-enea

943 80 60 66 LEGORRETA



sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Beasaingo gazte taldeentzat lokalak egokitu dira Antzizar kiroldegian

7 musika taldek eta 4 gazte taldek erabiliko dituzte oraingoz

Beasaingo Udaleko Gaztedia eta Kirol sailetik ekimen berria aurkeztu da: herriko gazte taldeentzat lokalak egokitu dituzte Antzizar kiroldegiko sotoan. Momentuan 11 talde arituko dira bertan, 4 geletan banatuta. Hori bai, Peio Garaialde Gaztedia eta Kirol zinegotziak, beharra izanez gero, lokal gehiago egokitzeko konpromisoa hartu du. Orain, sotoetatik kalera aterako den produkzioaren zain daude ekimen honen bultzatzaileak.

Martxoaren 3an egin zen Antzizar kiroldegian, udalaren eta gazte taldeen arteko hitzarmen sinatzea. "Ekimen honekin herrian diharduten gazte talde eta erakundeen arteko elkartasuna eta jardura bultzatu nahi ditu udalak. Elkartasun horretatik, urtean zehar hainbat ekintza programatu nahi dira", dio hitzarmeneko puntu batek.

Momentuz, 11 taldek erabiliko dituzte Beasaingo udalak egokitutako lokalak. Ekimen honekin, udaletxetik laguntza eman nahi zaie herriko musika taldeei eta gazte



11 talde

Momentuz, Beasaingo 11 talde ezberdinek izango dute Gazte lokal hauek erabiltzeko aukera. 7 musika taldeak dira: Spuri-um, Sin Red, Anagrama eta oraindik izenik ez daukaten beste lau talde. Beasainen beste 4 musika talde ere badaude, baina momentuz beraien entsaio lekuetan jarraitzeko asmoa azaldu dute, dauden lekuan gustura daude eta. Musikaz gain, motor munduarekin lotutako beste bi elkarte ere badaude: Euskalbiker eta Goierriko motorkluba. Gazteekin lanean dabilen kaleko hezitzaile taldekoek azkenik, Eunete taldearekin (arte, estetika eta kulturaren ikerketa konparatura zuzenduriko esperimentazio zentroa) banatuko dute lokala.

taldeei. Lau gela egokitu dituzte Antzizar kiroldegia- ren sotoetan. Hori bai, irekita daude udaleko Gaztedia eta Kirol sailekoak, hala behar izanez gero, lokal gehiago egokitzeko. "Ekimenari ondo erantzunez gero, lokal gehiago egokitzeko konpromisoa hartzen dut. Zuen esku dago ondo ateratzea ala ez", dio Peio Garaialdek. Ander Telleriak, Gaztedia saileko tek-

nikariak, egunean azpimar- ratu zuenez, "ez genuen espero gazte taldeen aldetik horrela- ko erantzunik jasoko genuenik, eta inauguratzerako txiki gelditu da".

Dohainik eskaintzen ditu lokalok Beasaingo udalak. Orain talde bakoitzak norbere beharretara egokitu beharko ditu lokalak. Antzizar kirol- degiaren ordutegi bera izango

dute lokal hauek ere. Dena den, beste ordutegiren batean erabili behar izanez gero, es- kaera berezia egin beharko dute.

Hasiera besterik ez

Udalarenak diren lokalak gazteentzako egokitzeko apustu honen ideia nondik sortu den adierazi digu Ander Telleriak. "Duela 3 urte Spuri-um taldekoak lokal bat es- katuz etorri zitzaizkigun. An- tzizar kiroldegiko lokal ba- tzutan aritu izan dira entsaia- tzen orain arte, oso baldintza txarretan. Talde honen jarre- ra oso ona izan denez, beste talde batzuekin elkarbanatze- ko lokalak egokitzea erabaki zen. Beste hiru talde aritu di- ra sei hilabeteetan. Oso ondo funtzionatu du eta txiki geldi- tu da berehala. Lokal gehia- go egokitzeko apustua egin da".

Dena den, apustua hasi besterik ez da egin udaletxe- ko arduradunentzat. "Etenga- be hazten joan nahi dugu. Ondo joanez gero, asteburue- tan ekintzak egiteko areto bat egokitzea ere ez litzateke ideia txarra izango. Bizia eman nahi zaio txoko honi". Bestetik, talde hauek produ- zitzen dutena promoziona- tzen eta komertzializatzen la- gundu nahi dute Gaztedia eta Kirol sailekoek.

Iñautsi
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76 ABALTZISKETA

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea

Eguneroko menua eguerdi eta gauetan larunbatetan ere bai	Afariak bataioak jaunartzeak
--	------------------------------------

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

Imanol Mujika Altzagako alkatea:

"Jendeak herri handiagoetako zerbitzuak eta erosotasuna aurkitu behar ditu herri txikietan"

Azken urteetan Altzagan, udalak bideratutako 26 etxebizitza egin dira. Horri esker, 90 biztanle inguru izatetik 135 izatera pasatu da Altzaga. Bikote gazteak joan dira. Herriaren etorkizuna ziurtatzeko etxebizitzaren alde egindako apustua ondo atera zaie, beraz. Dena den, Imanol Mujika alkateak badaki aurrera begira etxebizitza gehiago egin beharko direla, hazkundea naturala izan dadin.

Arama, Mutilo eta Gaintzako errealitateak ezagutu ondoren, Altzagara bisita egin dugu oraingoan. Altzagarekin, bukatuko dugu, Goierriko 200 biztanlez azpiko herriei eskaini diegun tartea.

Imanol Mujika da Altzagako alkatea. 1978tik era batera edo bestera, zinegotzi edo alkate, herriaren zerbitzura ari da lanean.

Altzagak aspaldi samar egin zuen etxebizitza berriak herrian egiteko apustua, herriaren gazte jendea erakartzearen. 26 etxebizitza egin dira herri kaskoan eta baserri inguruetan ere bat baino egin dira. Apustua ondo atera zaie. "Biztanleria, bajuena egon denean, 90 inguruan ibili ginen. Gaur egun, 135 inguru gara. Kanpotik etorritakoak, ia erdiak izango dira". Bikote gazteak joan dira Altzaga-



Altzaga.

ra, batzuk umeeekin eta beste batzuk umerik gabe. Gehienak, Goierriko herrietakoak. "Biztanleriaren beherakada horri buelta emateko beste erremediorik ez zegoen. 100 lagunetik behera ezin da herri baten oreka bat mantendu. Noizbait Zeraingoei entzun diet, 500 bat lagun behar zirela, herri bati, era natural batean eusteko. Orain hemen 15 urtetik beherako 18 bat haur egongo dira, baina gertatu liteke, hemendik 6 urtera, etxebizitzaren dinamikari jarraipena ematen ez bazaio, berriaz ere beherakada izatea, jaiotza tasak txikiak izatea. 8 urtean zerbitzu egin dugu, baina ezin gara gelditu, konstanteak izan behar dugu gauza hauetan".

Altzagan baserri asko dago eta beste fenomeno bat ere gertatu da: "Baserriak saldu izan dira, kasu batzutan lurrik gabe, bizileku bezala, etxebizitza bezala". Izan ere, baserriak, beste lekuetan bezalaxe, beheranzko joera nabarmena izan du. "Baserriko aktibitateak bakarrik bizi de-

nik ez da egongo. Betiko baserri konbentzional horrek etorkizun kaskarra du. Oso espezializatutako baserriei ikusten diet etorkizuna. Produktu ekologikoen kasua adibidez".

Herri txikietara joateko dagoen aldeko joera aprobeztatzen saiatzen ari dira. "Bollada ona dago, herri txikietara joateko joera baitago. Jendeak, prezioetik aparte, beste zerbaite ere bilatu nahi du herri txikietan".

Zerbitzuak

Biztanleria igoera honen ondorioz zerbitzuetan aldaketarik egin behar ote izan duten galdetu diogu alkateari: "Goierri mailan bezala, zerbitzu garrantzitsuenak eskualde mailakoak dira. Ura- ren banaketa adibidez, Ur Kontsorziotik bideratzen da, bai herri kaskoan, eta baita Altzagarate, Sarasola eta Abali auzoetan ere. Udaletxe-ko sarea baserri gehienetara pasatuta dago, bost geldituko dira, beraien iturriekin funtzionatzen baitute. Beraz, Or-

"Etorkizuna etxebizitza berriak egitetik ikusten dut. Konstanteak izan behar da kontu honetan"

diziako edo Beasaingo kalean daukaten ur berdina daukagu hemen ere". Zaborren kontuan ere berdina, Sasieta Man- komunitateak baitarama gai hori.

Imanol Mujikak azpimarratu duenez, okerren dagoen zerbitzua, garraio publikoarena da. "Ez dakit noren kulpadela, gu ibiltzen ez garelako- edo". Hori bai, eskolamene- tzako autobus zerbitzuan ez dago arazorik. Ordiziako Ur- daneta ikastetxetik, Jakintza ikastolatik eta Oianguren Ins- titututik autobusak etortzen dira herriko haurrak jasotze- ra.

Haur parkea, pilotaleku estali berria, plaza inguruaren txukuntzea... egin dira beste- ak beste azken urteetan Al- tzagan. Mujikaren esanetan, "herri hauek etorkizuna izan- go badute, biztanleriak gora egin eta dinamika bat sortu beharko da. Jendeak beste herrietan dauden zerbitzuak eta erosotasuna aurkitu be- har ditu herri txikietan ere. Ez da diferentziarik egon be- har Ordizian bizi edo Altza- gan bizi".

Hautzaindegia

Beste zerbitzu bat jartzeko asmoa ere badauka Altzagako udalak: Eusko Jaurlaritzaren bidez, nekazal guneetan 0-3 urteko haurrentzat hautzaindegia sortzeko aukera aprobetxatu nahi dute. "Lehenengo sortu diren txanda horretan ez ginen sartu eta orain dirudienez, aurreneko eskakera horiek erantzun behar diela eta, aurrera begira ez daukate erantzun garbirik. Udala interesatuta dago zerbitzu hau jartzeko eta lauza-bost haur ere egongo lirateke bertan gelditzeko. Udalak badi borondatea lokala egokitzeko, inbertsio handiegirik gabe, baina oraindik zehatz ez dakigu nola geldituko den. Ez dakigu posible izango litzatekeen datorren ikasturte hasierarako hautzaindegia prest egotea. Udala horretarako gestioak egiten ari da". Altzagako alkateak hautzaindegiaren garrantzia azpimarratu du behin eta berriz, "hautzaindegiak lotura sortuko luke eta zerbitzu bezala ere ona eta garrantzitsua da, bai herri bezala eta bai gurasoentzako zerbitzu bezala".

Dena den, haur handixea-goak biltzeko bilgunea, ludoteka, martxan dago dagoeneko. Helburuak ondokoak dira: elkarren artean harreman sortu eta sendotzea, eta herrian, herri kaskoa erreferente izatea. Urtean zehar larunbat goizetan biltzen dira, 10:00etatik 13:00etara. Bi arduradun daude bertan. Uda

Urte asko

herriaren zerbitzura

Imanol Mujikak urte asko daramatza Altzagako udal-txean lanean. 1978tik, zinegotzi eta alkate izan da. "Onerako eta txarrerako izan daiteke hainbeste urte eramatea", esan du Imanol Mujikak.

1989. urtera arte, Itsasondoko auzo izan zen Altzaga. 1989an desanexioa lortu zuen. Mujikaren esanetan, "diru aldetik, abantaila handia izan da Altzagarentzat. Herri izateagatik bakarrik ematen den laguntza handia da".

Urte askotako esperientzia dauka Mujikak eta argi dauka, emaitzak lana egiten den neurrian lortzen direla. "Askotan, dauden aukerak aprobetxatzen jakin behar da, dauden dirulaguntzak lortuz. Batzutan negar egiten dugu dirurik ez dagoelako, baina dirua maletin beltz



batean ez digu inork ekarriko. Proiektuak eskuarteak edukita, batzutan, aukerak izaten dira dirua lortzeko. Batzutan dirua ez da izaten dirua arazo handiena. Badi-ra landu beharreko beste kontu batzuk". Adibide bat jarri du Imanolek: "guk orain bertan badaukagu urbanizazioko obra bat egiteko, Altzagaraten, Mendiola-ko bailaran, gune urbano bezala deklaraturik dago, eta batek bi etxebizitzako etxe

bat egin nahi duela eta, Udalak gune guztia urbanizatzeko erabaki du. Iaz Diputazioak dirulaguntzak atera zituen, eta laguntza bat lortu dugu, proiektuaren %50a. Askotan, aurrez prestatuta egonda, laguntzak izaten dira".

Beste adibide bat ere jarri du Imanolek. Azken urteetan Erein programaren bidez, Europako fondoetatik, diru dezente lortu dute. Plazako urbanizazioa adibidez.

partearen, oporretan, berriz, uztailean, astean hiru egunetan biltzen dira.

2 taberna eta elkarteak badaude Altzagan eta guztiak ere oso garrantzitsuak. "Herri kaskoan dagoen taberna, Olagi, oso garrantzitsua da, herrian kanpoko jendea erakartzen baitu eta plaza inguruarik bizitasuna ematen baitio. Olagi ireki aurretik, jendeak joera, Altzagaratera igotzeko zuen, baina hura au-

zoa da eta herri kaskoan ez zen bizitasun hori islatzen. Olagik herri giroa sortzen asko laguntzen du", adierazi du Mujikak.

Natura interpretatzeko ibilbidea

Gaintza, Baliarrain eta Altzagako udalak, elkarlanean, hiru herriei bizitasuna emateko proiektu bat gauzatzen ari dira. Natura interpretatzeko panelen bidez, ibilbideak seina-

lizatu dira. Horrez gain, herri bakoitzak atsedeen gune bat prestatu du, mahaiak eta haurrentzako jolas gunearekin. "Orain, ibilbide hori promozionatzeko bideak aztertzen ari gara. Goiturrekin harremanetan jarrita gaude. Uda-keneko guztia bukatuta egotea espero da. Erein programatik diru laguntza lortu dugu proiektu honentzako. Mendi Federazioak homologatutako ibilbidea da, 8 kilometro ingurukoa".



AUSGEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Lore eta landareen udaberriko azoka, Seguran, martxoaren 21ean

Udaberria heltzearekin batera, Seguran, loreak eta landareak izaten dira protagonista. Martxoaren 21ean, igandean, lore eta landareen udaberriko azoka izango baita. 4. edizioa izango du, Segurako udalak eta herriko hainbat elkarte eta herritarrek elkarlanean antolatutako ekimenak. Azokaz gain, ekintza osagarriak ere izango dira, egunean zehar Segurako kaleetan.

Laugarren edizioa izango du Segurako lore eta landareen udaberriko azokak. Martxoaren 21ean izango da, goizeko 10etatik aurrera.

Gero eta indar gehiago hartzen ari denaren seinale, inoiz baino lora eta landare saltzaile gehiago izango da aurten. Guztira 18 saltzaile. Aurten gainera, Iparraldetik ere etorriko dira. Lore eta landareez gain, beste 22 arti-



sau postu ere izango dira.

Eguraldiaren beldur izan beharrik gabe, plazan jarriko duten karpan izango dira postuak.

Ekintza osagarriak ere izango ditu azokak. Esate batera, kaleko arbolak zaintzeko eskalada teknikaren bidez nola lan egiten duten ikusteko eta ikasteko aukera izango da, goizeko 11etatik aurrera.

Ondoko koadroetan dituzue ekintza ezberdinei buruzko xehetasunak.



Egitaraua

10:00etan: Azokaren irekiera ofiziala: Lore eta landare erakusketa eta salmenta. Eskualdeko artisautza eta produktuak.

11:00etatik aurrera: Arborikultura ikuskizuna, plaza inguruan. Kale-arbolazaintzaren zainketarako "tropa" eskalada teknikaren bidez bi zuhaitz kimatuko dira.

18:00etan: Musika emanaldia Tobera Musika Eskolaren eskutik eta herriko dantzarien saioa plazan.

Ondoren, buruhandiak.

Erakusketak

Ardixarra Etxean, 'Baratza kritikoa: Elikagaiekin zer ari da gertatzen?' erakusketak ikusgai izango da, martxoaren 18tik apirilaren 11ra. Ordutegia: ostiraletik igandera, 11:00-14:00 eta 16:00-19:00. Aste bitartean bisitatzeko, 943801006 telefono zenbakira deitu behar da.

Apirilaren 7tik 21era berriz, 'Ibaialde: gure erreken egoera' erakusketa egongo da ikusgai, Ardixarrenean bertan.

Arborikultura: Kale-arbolazaintza

XIX. mende geroztik zuhaitzak hirietan era masibo batean sartu ziren. Onura handiak ditu kale-arbolazaintzak, besteak beste, ingurugiroa, estetika, kutsadura murrizketa... Baina kalteak ere sor ditzake, esate baterako, gastu ekonomiko garrantzitsua, orbela eta fruituek sortutako zikinkeria, baina batez ere, giza-kiengan arrisku handiak sor ditzake zuhaitz eta adarrak erortzeagatik.

Zuhaitz hauen zainketa oso garrantzitsua da eta askotan zailtasunez betea ere. Garabiak erabili beharra, trafikoa moztu beharra, gastu ekonomiko handia, etab. Arazo guzti hauen ondorioz "Tropa" terminologia sortzen da. Hau da, kaleko arbolak zaintzeko eskalada teknika bat da.

Segurako plaza inguruan, martxoaren 21ean goizeko 11etatik aurrera eskalada teknika hau ikusteko aukera egongo da bertako zuhaitzetan.

'Baratze kritikoa' erakusketa

Nafarroako 'Mugarik gabe' gizarte erakundeak 'Baratze kritikoa' izeneko erakusketa prestatu du elikadura eta nekazaritza/abeltzaintzari buruz. "Gero eta jende gehiago ari da elikatze ahalmena galtzen. Zer ari da gertatzen? Zergatik lapurtzen digute ahalmen hori? Zeinen eskuetan daude baliabideak? Nortzuk hartzen dituzte erabakiak? Zeintzuk dira gure aldarrikapenak, gure proposamenak? Erakusketa honen bidez sarritan egiten ditugun galdera eta sortzen zaizkigun zalantzei erantzuna ematen saiatuko dira, hara nola: elikadura beharrak aseta al daude munduan?; nola produzitzen eta nola banatzen dira elikagaiak?; zeinen eskuetan daude baliabideak?; nork kontrolatzen du merkatua? Merkataritza desleialaren praktika; elikagaien produkzioa hazten doa bainan elikagai beharrak ez dira asetzen. Zeintzuk dira gosearen eragileak?; zeintzuk kontrolatzen dute nekazaritzako elikagaien sektorea?; nork ezartzen ditu munduko merkatuaren arauak?; nola indartu tokian-tokiko nekazaritza produkzioa?".



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

**Martxoaren 30etik aurrera
indar berriz gatoz**

943 88 20 49 -- OLABERRIA



Sagardotegia

*Bertako sagarrarekin
egindako sagardoa
txotxetik urte osoan*

Eguneroko menua

Astelehenetik ostiralera

7

Ospakizunak

*Jaunartzeak, bataioak,
enpresa bazkariak...*

Igandeetan enkarguz

Lore eta landareen udaberriko 4. AZOKA

Segura

2004ko Martxoaren 21ean

EGITARAUA

10etan, AZOKAREN IRIKIERA OFIZIALA

- Lore eta landare erakusketa eta salmenta
- Eskualdeko artisautza eta produktuak

11etatik aurrera, IKUSKIZUNA plaza inguruan

Kale-arbolazaintzaren zainketarako "trepa"
eskalada teknikaren bidez bi zuhaitzen kimaketa egingo da

Arratsaldeko 6retan

- Musika emanaldia Tobera Musika Eskolaren eskutik eta herriko dantzarien saioa plazan
- Ondoren, buruhandiak

ERAKUSKETAK, Ardixarran

BARATZE KRITIKOA:

Elikagaiekin zer ari da gertatzen ?

Martxoaren 18tik apirilaren 11ra

IBAIALDE:

Gure erreken egoera

Apirilaren 7tik 21era

ANTOLATZAILE:



SEGURA UDALA

Agustin Legorburu zurgina omendu du Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak

Segurarrak eskuareak eta herraminta kirtenak egin izan ditu

Otsailaren 27an jaso zuen Gipuzkoako Merkatal Ganbarak artisauei ematen dien saria. Lotsa ere pasatu omen zuen hainbeste jenderen aurrean. Dena den, diploma jasota gustura dago Agustin Legorburu. Segurarrak eskuareak eta baserriko herramiententzat zurez kirtenak egin izan ditu ia 40 urtean.

Egurra edo zura landu izan du Agustin Legorburuk, orain utzi samar badu ere. Eskuareak eta baserriko tresnen kirtenak egin izan ditu. Zerain-Sagasti baserrian duen tailerrean makina bat ordu pasatu izan ditu, txiki-txikitatik oso gustuko izan duen lan honetan. Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritako azoketan bere lana erakutsiz eta salduz urte askoan aritu izan da, Pedro Mari Galparsoro segurarra lagun zuela. Zumitzezko altzariak egiten zituen honek. Datu bat eman digu Agustinek: “behin, Errenterian, lau egun pasatu genituen etxera etorri gabe. Han egiten genuen jan eta lo, Lintzirin hotelean. Ondo ordaintzen zuten gainera”. Galparsorok ere jaso da Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen saria.

77 urte ditu segurarrak eta urte askotako jakituriaren jabe da. Egur lana, arotz lana beti-betitik gustatu izan zaio eta beti aritu izan da gutxi eta gehiago. “Garai batean arotz ikastea gauza handia zen. Lehenengo Beasaingo Eskisa-



Afizio askoko gizona

Kaktusak oso gustuko ditu Agustinek. Kaktus bilduma handia du, kaktus dotoreak, zein baino zein ederrago. “Iaz, San Joanetan, Segurako udalak balkoi ederrenari ematen dion sarian, baserrien atalean, bi etxe saritu zituzten eta guri bigarren saria eman ziguten. 17.000 pezeta eman zizkiguten. Gure gurasoek jakin izan balu loreengatik 17.000 pezeta emango zizkigutela!... Garai batean etxe inguruan dena asuna izaten zen”, dio Agustinek.

Kanarioak

Txoriak hazten ere ibili izan da Agustin. Gaur egun gutxiago ditu, kaiolak egokitzen eta txukuntzen ari baita. “Urte askotan, urtero 100 bat kanario hazi izan ditut. Kanarioak kantatzen hasten zirenean saldu egiten nituen. Faisanak, zozoak, birigarroak, eperrak... txori klase asko izan ditut. Zozoek etxean umeak atera dizkirate bi urtetan. Aurten arrautzak atera dituzte, baina ustelak, goizegi ibili dira eta”.

Esparragoak Seguran

Duela urte batzuk, beste esperimentu bat ere egin zuen Agustinek: esparragoak landatzea. “Aspertu ederra hartu genuen esparragoak jaten. Izugarri eman zuten. Zangak egin, simaur ustelarekin goxatu eta oso ondo eman zuten. Itsasoko hondarrek estali genuen lurra, hemengo lurra zartatu egiten baita, bustiarekin eta beroarekin, eta ez du indarririk hartzen”.

bel moblerian aritu nintzen. Martxa txarra ikusten nion enpresari eta Idiazabalgo Patricio Etxeberrian, lima fabrikari, hasi nintzen. Hortik

jubilatu nintzen, aurrejubilatarioarekin, 59 urterekin”.

Eguneroko lanak uzten zion tarteetan egur lanean aritzen zen Agustin. “Jaietan

ere bai, pekatua izanagatik”, dio irribarrez. Goierri guztitik etortzen ziren erostera, inguruan, Agustin bera bakarrik aritu izan baita lan honetan.

Lanabesak

Orokorrean, baserriko zurezko herramientak egin izan ditu: eskuareak, sega kirtenak, aizkora kirtenak, laia kirtenak, sarde kirtenak, aitzur kirtenak, sarde kirtenak, bastoiak... Guztiak ere egurrezkoak. “Sega kirtenak egiteko lizarra erabiltzen dut. Eskuarak egiteko, kirtenetan, hurritza, lizarra edo zumarra... Burua egiteko, lizarra pisuegia da, sahatsa, pantanoa... Pantanoa da onena. Lanerako goxoa da, lana erraz ateratzen da eskuetatik”, adierazi digu. Gaur egun adornurako erabiltzen den laiaren heldulekuak ere egiten ditu. “Gaur egun ez dira lanerako erabiltzeko, adornurako baidir. Leku askotan kirtenik gabe gelditzen dira eta jendeak oso gustura erosten ditu laia kirtenak. Ez dauka inportantzarik ze materialekin egin, adornurako baita”.

Iazko irailean Seguran jokatzen zen nazioarteko sega txapelketa arreta handiz eta gustura egon zen begira Agustin, herrialde ezberdinetako segei begira. Kirten ezberdin ugari ikusi zituen. Modeloren bat hartu ote zuen galdetu diogu. “Sega kirtenak oso diferenteak ziren, penatu handia hartu behar dutela iruditzen zait”.

Bastoiak ere egin izan ditu Agustinek. “Lujuzko bastoiarik ez dut egiten, lujuzkoek prezio handia izaten dute”.

Elorri Kultur Elkarteak eta Iparraldeko hainbat kidek antolaturik Segurako IX. Iparr-Hegoa kultur jardunak Araba izango du protagonista

Seguran, IX. Iparr-Hegoa kultura jarduna izango da, martxoaren 22tik 28ra. Araba izango da aurtengo protagonista, 'Zazpigarren alaba' lurraldea gehiago ezagutu eta harremanak egin eta sendotzeko helburuarekin. Asteazken zehar hitzaldiak izango dira eta astebururako utzi dituzte ekitaldirik nagusienak.

Segurako Elorri Elkarteak eta Iparraldeko hainbat kidek antolatzen dute Iparr-Hegoa kultur jarduna. Aurreko bederatzigarren edizioa izango da. Iparr-Hegoaren helburua hau da: "Euskal Herria bere osotasunean islatzea. Euskal Herri guztiko jendea elkartuz esperientzia, kultur eta ohitura ezberdinak konpartitu eta elkar trukatzeko aukera ematen du ekimen honek".



Lehenengo urteetan Iparraldeko hiru probintziak protagonista izan ziren. Iaz Nafarroa gertuagotik ezagutzeko aukera izan zen eta aurreko Arabaren txanda izango da. Arabako errealitate ezberdinak gertuagotik ezagutzeko aukera izango da, martxoaren 22tik 25era egingo diren hitzaldietan.

Dena den, era askotako ekitaldiak antolatu dituzte Seguran. Jarraian duzue asteazken zeharreko ekitaldiak. Hori

bai, ekitaldi nagusiak martxoaren 26tik 28ra izango dira eta hurrengo alean izango dugu horren berri zehatzagoa.

Martxoak 22, astelehena:

19:30ean, Kultur etxean, 'Arabaren historia orokorra aurkezpen bezala eta Trebiño barne'. Hizlaria: Kike Fdez Pinedo, irakaslea eta Ikastolaren Federazioko kidea.

Martxoak 23, asteartea:

19:30ean, Kultur etxean, 'Muga arazoa'. Hizlariak: Logroñoeko 'Lamineturri' taldekoak, Miranda de Ebroko 'Lagunartea' elkarteak, Oiongoak eta Eskuernagakoak. Ardo produkzioaren historia ere hitz egingo da, das-taketarekin batera.

Martxoak 24, asteazkena:

19:30ean, Kultur etxean, 'Garroña, guztion arazo'. Hizlaria: Bergondako herritarak. Añana bailarako egoerari buruz ere hitz egingo da egun berean. Bailara honen egoera administratiboa, despopulazioaren arazoa eta Gesaltzako gazta gaiak landuko dira.

Martxoak 25, osteguna:

19:30an hasita, herriko tabernetan, poteoa eta afaria Arabako hiru bertsolarirekin: Zigor Enbeita, Oihane Perea eta Ricardo Gonzalez de Durana.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



**Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa**

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA



OVER Taldea

8 egun edo
gehiagoko
bidaietan
deskontu bereziak

Kale Nagusia 42, beheak
Tel./Faxe: 943 80 40 15
BEASAIN
urrakibidai@telefonica.net



Plazako zubia bota dute

Martxoaren hasieran bota zuten plazatik Kultur Etxera bitarteko zubia. Orain, zubi berria jartzeko lekua egiten ari dira. Zubi berriak, plazaren zati bat ere hartuko du eta lanak uda alderako bukatzea espero dute.

Plazako zubiarekin batera, herriko historiaren zati bat ere badoa. Zubia, gerra aurretik egindakoa zen. Orain Kultur Etxea dagoen eraikina (lehengo eskolak) egin zutenean eraiki zuten. Aurretik pare horretan ez zegoen pasabiderik. Duela hamabost bat urte berri zuten zubia, nahiz eta hasierako itxurari eutsi zion.

Toki Txokoko zubia ez zen hain zaharra. Herritar askok izango du gogoan, orain bota berri dutena baino lehen zegoen harrizko zubia.

Errekako lanak bukatzen direnean itxura berrituta gertuko da inguru guztia, ordura arte, ordea, traba ugari izango da herri gunean.

Obra gehiago

Azken egunotan, berriro ere, herrian batean eta bestean makinak lanean ikusi litezke. Herri sarreran, Arizkorreta ondoko errotondan aldaketak egitea erabaki du Udalak. Gune horretan ibilgailu handiek pasatzeko zailtasunak ziztuzten, errepidea eta erdiko lorategiaren artean zegoen koska zela eta. Hura kenduta dago orain.

Herri gunean, Gurutze Berritik Bikuña kalera arteko bidean ari dira obrak egiten. Inguru horretan egiten ari diren etxearekin dute zerikusia lan horiek. Zepai inguruan, beste



Etxegarate

Etxegarateko bide berriak urtebete bete zuen martxoaren 6an. Urtemuga baino egun batzuk lehenago, bide berria ireki zutenetik lehendabizikoz, Etxegarate itxi beharra izan zuten. Elurrraren eraginez martxoaren hasieran behin baino gehiagotan egon da errepidea itxita.

Gipuzkoako Diputazioaren datuen arabera, Etxegarateko bidea bikoiztu zutenetik ia lau mila ibilgailu gehiago ibiltzen da egunero errepide horretan. Guztira hamasei milatik auto eta kamioiek zeharkatzen dute gure herria egun joan eta eguna etorri.

Ikastaroak

Udalak, talla, hari lanak eta pintura dekoratiboa lantzeko ikastaroak antolatu ditu. 20 ordukoak izango dira eta izena Udaltxean eman behar da.

Elkarri

Gasteizko Legebiltzarrean eta Iruñako Parlamentuan, elkarriketa bultzatzeko mahaiak sortu ditzatela eskatuz sinadurak bildu zituen Elkarrik Idiazabalen martxoaren 6an.

Azkarateren alde

Manu Azkarate, Tolosako presoaren egoera salatuz mozioa onartu zuen Udalak otsaileko osoko bilkuran. Mozioa, Indar-zabal taldeak aurkeztutakoa zen. Aho batez onartu zen agiria, azkeneko puntua izan ezik. Atal hori, konzentrazio bat egiteko deialdia zen.

hainbeste, han egindako adosatuetara argi indarra eramateko ari dira obratan.

Berehala, Jeronimorenetik

behera falta den espaloi zatia egiten hasiko dira.

Xabier Urteaga



kutxa

gizarte ekintza

Abesbatza osatzeko asmotan

Joan den ostiralean bildu ziren abesbatza osatzeko ahaleginetan dabilzanak. Udalak lagunduriko ekimena izango da, eta horretarako, 20 lagun inguru bildu behar direla aipatu zuten. Gutxi gora-behera elkartu ziren hainbeste lagun, baina inori ez zaizkio atek itxiko. Inork bere izena eman nahi izango balu, joan dadila udaletxera, bulego orduetan.

Jubilatuena junta berria

'Aldaieta' Jubilatu eta pensionisten batzar orokorrean junta berria aukeratu zuten. Honakoa da berau osatzen duten izenen zerrenda: Lehendakaria: Juanita Jauregi. Lehendakariordea: Maritxu Jauregi. Idazkaria: Luis Arakistain. Diruzaina: Pascual Iraola. Gainontzeko kideak: Sotero Calleja, Patxi Esnaola, Jose Mari Izagirre, Jose Zunzunegi, Jose Antonio Lasa, Milagros Izagirre, Juanita Etxeberria eta Axun Larrea.

Jubilatuena bulego ordutegi honetan egongo da zabalik martxoaren 1etik aurrera: astearte eta ostiralean, 11,30etatik 12,30etara.

'Pakita' antzezlan

Emakumezkoen Egunaren inguruan, "Pakita" antzezlan izango da ikusgai datorren martxoaren 18an, gaueko 10,30etan, herri zineman. Antzezlan honen zuzendaria Ernesto Caballero da, eta aktorea, berriz, Itziar Ituño. Esan behar da, Kutxa Gizarte Ekintzari esker ekarriko dela antzezlan hau, eta dohain izango da.

Odol ematea

Hurrena odola emateko aukera, martxoaren 23an izango da, ohiko lekuan, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara.

Zelai Amenabarro



Herriko festak prestatzen

Dagoeneko egin dira hainbat bilera aurtengo herri jaien inguruan. Dakizuen bezala, bi urtez behin herri osoa gai baten inguruan mozorrotzen da festetako larunbatean. Jakinarazi dutenez, aurtengo gaia "Halloween" izango da.

Bestalde, asteazkeneko herri afaria egingo den ala ez ere eztabaidatu zen, lan handia baitakar. Hala ere, badago lan hori hartuko duen inor, beraz, aurtengo ere, azintzio bezperan afaria izango da Bilkoin Elkartean.

Oharra: Zure negozioaren iragarkia Jai Egitarauan inprimatua azaltzea nahi baduzu, egoki deritzozun testua, tamaina eta diseinua martxoaren 19a baino lehen goizeko 7,15etatik 12etara Udaletxeko Bulegoetara eraman ezazu. Iragarki arrunt bakoitzaren prezioa (orrialdearen 1/6 edo 1/7 gutxi gora behera) 25 euroakoa izango da, bereziarena (egitarau orrialdea) berriz, 100 euro. Era berean, horretarako interesik ez baduzu, ahal bezain laster jakinaraztea eskatzen da.

Sahararen aldeko janari bilketa

Errefuxiatu sahararrak dauden kanpamenduetara eramateko elikagaiak (pasta, atuna, azukrea, lekaleak) biltzeko kanpaina Legorretan jasotako elikagai kopuruak honako hauek dira: lentejak 26,500 kg, babarrunak 14 kg, arroza 28,500 kg, azukrea, 26 kg, makarroiak 23 kg, garbantzuak 16,500 kg, olio 28 litro, irina 8 kg, atuna 9,150 kg, espagetiak, fideoa eta latak 6,5 kg eta gatz 1 kg. Ekintza honek errefuxiatuta dauden sahararren elikatzeko maila hobetzen lagunduko du.



mazda
Bikar, S. A.

Mazda2



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**



Zorion Insaustiren
laguntzaz

Aurikuloterapia
Iriodologia
Dietetika
Senda belarrak




Oreka

Dietetika eta
medikuntza naturala

☎ 943 88 13 37

☎ 605 769 653

Kale Nagusia, 8 **ORDIZIA**



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA



Aurtzakako dantzari txikienen jaialdia

Aurtzaka dantza taldearen 25. urteurrena dela eta, dantza taldeko gaztetxoek eskutik emanaldi berezia ikusteko aukera izango da Usurbe antzokian, martxoaren 27an. Berezia da ikuskizuna, hainbat dantzez gain, irudiz osatutako istorio baten kontakizuna eskainiko dutelako. Murumendiko Mari sorgina izango da istorioko gidari eta Goierriko txokoetan zehar bidaiatzeko aukera izango da bere eskutik. Jaialdia arratsaldeko 5etan hasiko da.

Aurreku eta Soinu Zahar txapelketak

Aurreko asteburuan dena den, izango da beste dantza ikuskizun bat Usurbe antzokian bertan. XIII. Haur eta gaztetxoek Aurreku eta Soinu Zahar txapelketak izango dira. Martxoaren 20an, arratsaldeko 4etan hurrei dago-kiena izango da eta, igandean, 21ean, goizeko 10,30etan, gaztetxoena.

Nekane Altuna

Osasunaren inguruko hitzaldiak

Asmube Beasaingo Emakume Elkarrekin antolatuta, osasunaren inguruko hitzaldi desberdinak ari dira ematen martxoan zehar. Hurrengoak ondorengoak izango dira: **martxoak 17:** 'Depresioa tristuraren gaixotasuna'. **martxoak 24:** 'Estresa. Lanpetuak bainan ez kezkatuak'. **martxoak 31:** 'Heldutasunari baikortasunarekin aurre egin'.

Odol ateraldia

Odol Emaileen Ordezkaritzak jakinarazten du, martxoaren 23an egingo dela odol ateratzea Urbi etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emailer gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.

V. Igartza literatur sorkuntzarako beka saritutako lanaren aurkezpena

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak antolatutako idazle berrientzako V. Igartza literatura-sorkuntzarako beka saritutako Julen Gabiria Lararen 'Han goitik itsasoa ikusten da' liburuaren aurkezpen-ekitaldia martxoaren 17an egingo da, arratseko 7etan Beasaingo Igartzako jauregian.

Jaietako egitarauko azalaren lehiaketa

Udaleko Kultur Batzordeak lehiaketa antolatu du 2004ko Loinatz-Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko. Edozeinek har dezake parte lehiaketa honetan eta edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira. Lanen neurriak berriz, 42 Xx60 zm. edo tamaina proportzionalekoa izango da. Hori bai, lehiaketako gaia, Beasaingo Loinatz-Jaiak izango da eta lanetan, 'Beasain, 2004ko Loinatz Jaiak. Maiatzaren 21etik 30era' testua idatzirik agertu beharko da. Lanak apirilaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaletxeko Hiritarren Harrera Bulegoan. Saria 318 eurokoa izango da

Mus txapelketa Arranon

Bihar, martxoak 13, XIV. Arrano mus txapelketa jokatu da arratsaldeko 4,30etan hasita. 4 erregetara jokatuko da, 30 tantuko 3 usteletara. Izen ematea Arrano tabernan egin behar da arratsaldeko 4,30ak arte. Bikoteko 25 euro ordaindu beharko da. Sariak: irabazlearentzat 1.000 euro eta txapeleta, 2. sailkatzen denak 500 euro, 3. nak 250 euro, 4. nak 125 euro, 5. nak arkume bat, 6. nak ardo kaxa bat, 7. nak bi opil eta 8. sailkatzen denak 2 kava botila eramango ditu. Herriko lehen bikoteak berriz bi txuleta eramango ditu.

Bertso jaialdia eta sari banaketa

Bertsoaren Beasaingo Lagunak eta Arrano Kultur Elkarrekin antolatu duten bertso jaialdia, martxoaren 18an izango da gaueko 10,30etan Usurbe Antzokian. Sarrera 4 euro kostako da. Andoni Egaña, Jokin Sorozabal, Alaitz Sarasola eta Unai Iturriaga arituko dira bertsoetan. Ekitaldi honen barne egingo da II. Neguko bertso paper lehiaketaren sari banaketa. Eñaut Agirrek abestuko ditu irabazleen bertso sortak.

Garagardo festa

Ekel tabernan, martxoaren 12, 13 eta 14an garagardo festa izango da.

Gurutze Gorriak antolatutako ikastaroak

Laster 3 ikastaro hasiko dira Goierriko Gurutze Gorrian. Lehen laguntzen inguruko (30 orduko iraupena izango du eta astelehenetik ostegunera emango dute); itsas sorospinari dagokiona (40 orduko iraupena izango du. Klase teorikoak astelehenetik ostegunera emango dira eta praktikak noiz egingo diren zehaztu gabe dago oraindik); eta osasun garraioa (250 orduko iraupena izango du eta astelehenetik ostiralera emango dira klaseak). Goierriko Gurutze Gorriaren asmoa, lan poltsa bat sortzea da, ondoren, 112-ko Larrialdiko Osasun Garraioan lan egiteko. Izena emateko: 943 162150.



Yoga ikastaroa

Aurtengo ikasturtean ere yoga ikastaroa arrakasta handia izaten ari da eta herritar asko partaide da aipatu ikastaroan. Ikastaroa kultur etxeko aretoan burutzen da astearte eta ostegunez, eta talde bakoitzak ordu eta erdiko saioa burutzen du. Adieraziriko aste-ko bi egunetan, oraingo egun bakoitzean bi talde aritzen dira, lehenengo taldea 18:00-19:30etara bitarteko ordutegian bigarrena berriz 19:30etik 21:00etara.

Dena den oraindik ere yoga ikastaroan parte hartzeko gogoia izanez gero aukera duzuela adierazi nahi zaizue. Argibide gehiago edo izena eman nahi izanez gero nahikoa duzue adieraziriko egun eta ordutegian kultur etxera hurbiltzea.

Odolemaile elkartearen eskertza

Herriko mediku kontsultorioan, otsailaren 24an, egin zen azken odol ateraketan 51 odol ateraketa egin ziren, nahiz eta bertara hurbildu ziren odolemaileak 54 izan.

Oraingo odol ateraketan ere Elozegi ardotezia, Murua harategia, Deba harategia eta Iñaki Autoserbitzua, Euskadiko Kutxa, Lazti garraioak, Otordu, Mediku kontsultorioa eta udala izan zituzten laguntzaile. Beraz aipaturiko guztiei elkartearen izenean eskerrik beroenak bidaltzen dizkiegu, baita odol ateraketan parte hartu zuten odolemaile guztiei, bai herritar eta baita Gabiria eta Ezkio-Itsasotik hurbildutakoei ere.

Barduliarrak elkarteko oharra

Barduliarrak Elkarteko Zuzendaritzatik hel arazi diguten ohar honen berri eman nahi dizuegu. Hain zuzen aipatu elkarteko sukaldean egin behar diren berrikuntza lanak direla eta martxoaren 6tik hilaren 15era bitartean elkartea itxita izango da.

Garizuman otoitzaldi-hausnarketak

Garizuman herriko parrokian ostiralero meza orduan gai desberdinei buruzko otoitzaldi-hausnarketak izango dira. Gai desberdinei buruzko irakurketa, hausnarketa, sakonketa eta abar burutuko dira bai herriko apaiz Clementek zuzenduta baita Beneditarren eskutik ere.

51. urteko kinto legunen bilkura

Urtero ohi bezala 51.ko kinto lagunek beraien urteko bilkura eguna prestatu dute. Tolosan elkartuko dira martxoaren 28an, lehenik eguerdiko 12etatik aurrera Aita Frantzizkotarren parrokian ospatuko den Meza Nagusian, ondoren 14:00etatik aurrera Fronton Jatetxean burutuko duten bazkarian. Joan nahi duzenok nahikoa duzue izena, martxoaren 24 baino lehen, jatetxean bertan ematea, 943-65.29.41 telefonora deituz.

Aitziber Murua



Ostatuko mus txapelketa

Otsailaren 28an jokatu zen ostatuan urteroko mus txapelketa. Aitz-buru elkartean gertatu zen bezala Joxe Mari Murgiondo eta Luis Aranburu izan ziren irabazleak.

Kultur etxean hitzaldia

Martxoaren 9an eman zuen Jakoba Errekondok landareei buruzko hitzaldia Kultur etxean

Ikastaroak

Cebank akademiak martxoaren 22tik aurrera ikastaro desberdinetan parte hartzeko aukera luzatu du. 3 arlotan emango dira ikastaroak: sukaldaritza, informatika eta landa turismoa. Azken honetarako baldintza da landa turismoa irekita izatea edo irekitzeko asmoa izatea. Izena emateko udalarekin harremanetan jarri.

Elurra nagusi

Azken urte hauetan gehiegi egin ez badu ere, otsailaren 26 arratsaldetik aurrera herriko bazter guztiak zuritzen hasi ziren baita ondo zuritu ere, herriko baserri altuenetan metro erdiraino iritsi zen elur maila. Oztopo bat baino gehiago sortu zituen elurak asteburuan eta astelehenean.

Iñaki Ugalde

Arrantza lehiaketa

Martxoarekin batera, badator aurten ere arrantza denboraldia. Tartaloetxe kultur elkar-teak aurten ere, ez du hutsik egin nahi urtero arrantzarekin edukitzen duen zitara eta denboraldia irikitzen den egun berdinean (Martxoak 19), herriko gazteentzat lehiaketa antolatu dute.

Izen ematea, osteguna 18, arratsaldeko 7etatik 8etara izango da, eta parte hartzeko gehienez 16 urte eduki behar dira.

Oharra: Informazio gehiago nahi duenak, Zegamako herrian jarrita dauden kartel informatiboetan begiratu dezake edo Tartaloetxe kultur elkarteko juntan dauden edo-zeinekin harremanetan jarri.

Sagardotegira irteera

Tartalo Kultur Elkar-teak antolaturik martxoaren 13rako Astigarragako Santiagomen-di auzoan dagoen Mendizabal sagardotegira irteera antolatu dute herritar guztientzat. Irteera arratsaldeko 7,30etan izango da autobuses eta itzule- ra goizeko 4,30ak aldera izango da.

Euskara egunak

Martxoaren 17an eta 18an, Euskararen eguna ospatuko dute eskolan. Arratsaldeko 14,30etatik 16,00etara, bi egunetan, antzerki eta dantza ikuskizunak eskainiko dizki-

gute Aitzuri Herri Eskolako haurrek Eskolako Gimnasio-an. Bertara Segura eta Ataun-go ikasleak etorriko dira. Aitzuri Herri Eskolako irakasle eta ikasleek herritar guztiak gonbidatzen dituzte eskaini-ko dituzten ikuskizunak ikus-tera.

Irteera Iratxera

Martxoak 25, osteguna, Jubila- tu Elkar-teak antolaturik Ira- txera bidaia izango dute jubi- latuek.

Erlezaintzari buruzko hitzaldia

Martxoaren 30ean, 14:30etan, Aitzuri Herri Es- kolan, erlezaintzari buruzko hitzaldia eta bideo emanaldia izango da ikasleei zuzenduta, Gipuzkoako Erlezain Elkar- tearen eskutik.

Igandetako bideo emanaldiak

Martxoak 21, arratsaldeko 5etan kultur etxean Guraso Elkar-teak antolaturik 'Matil- da' filma izango dugu ikus- gai.

Aitzgorri Futbol Taldearen partidukoak

Infantilak: martxoak 14: Aitzgorri-Urola, martxoak 21: Antiguoko-Aitzgorri, martxoak 28: Aitzgorri- Añorga.

Kadeteak: martxoak 14: Ma-



10 kiloko arbi buruak

Ibarreta aldean duen arbi soroan arbi buru galantak izan ditu Jesus Telleriak aurten. Urte askotan erein badu ere arbia soro- an aurten bezain arbi handiak ez omen ditu inoiz izan. Dozena erdi bat arbi buru atera zituen 9 kgtik 10 kg bitartekoak instat batean.

Edurne Albizu

Orkatzekoak Asturiasa

Martxoaren 26, 27 eta 28an, Orkatz eta Orkatz Txiki abesba- tzakoek Asturiasa bidaia egingo dute. Martxoaren 27an, Or- katz Txiki abesbatzak Avileseko Haur Abesbatzen Jaialdian parte hartuko du.

Martxoaren 28an Orkatz eta Orkatz Txiki abesbatzak Sali- nasen kontzertua eskainiko dute.

Tobera Musika Eskolaren eskutik Astearte Musikalak

Martxoaren 16an: Tobera Musika Eskolako akordeoiko, txis- tuko eta klarineteko ikasleen entzunaldia Kultur Etxean arra- tsaldeko 6:30etan.

Martxoaren 23an: Tobera Musika Eskolako pianoko ikasleen entzunaldia Kultur Etxean arratsaldeko 6etan.

Martxoaren 30ean: Tobera Musika Eskolako trikitixa eta panderoko ikasleen entzunaldia Kultur Etxean arratsaldeko 6etan.

riño-Aitzgorri, martxoak 21: 28: Beti Gazte-Aitzgorri. Aitzgorri-Añorga, martxoak



N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA



ZEGAMA
OKINDEGI

*Eskuz egindako
ogi naturala*

943 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak. **Legazpi:** Jabi harategia.

Elurrak ez zuen erromeriako giro ona hoztu

Pasa den otsailaren 29an, 'Zerain dantza zain' ekimeneko bigarren era zaharreko erromeria ospatu zen Zerainen. Inguruak txuri bazeuden ere, eguraldia ez zen dantza ez egiteko adinako aitzakia izan. Eliz atariaren babesean bildu zen jendea dantzatzeko eta kanpoko elurretik alde egiteko. Baina argi ikusi zen, inguruak izozten ari zen hoztari aurre egiteko modurik onena hankak astintzea dela. Horregatik, bertaratuek iluntze ederra igaro zuten eta festa giroa nagusitu zen, ez baitago umore ona bezalakorik ondo pasatzeko.

Igandeko erromerian, Koldo Iparragirre soinu-jolea eta Iban Gurrutxaga gitarra jolea

izan ziren musika jartzearen arduradunak. Dantza sustatzaile-irakasle lanetan Patxi Perez aritu zen eta lortu zuen jendea animatzea. Bertaratuak eta herritarrek martxoaren 28an ospatuko den hurrengo erromeriararen zain daukete. Aurreko hauek bezala, iluntzeko 6etatik 8etara izango da eta Oa Kultur Elkartearen eskutik aho goxagarririk ere izango da, jatekoa eta edatekoa. Elurra ez bada gai izan erromeriako giro ona zapuzteko, eguraldi on xamarrekin Zeraingo plaza ere, txiki geratzea espero dute antolatzaileek datorren erromerian, martxoaren 28an. Ez baitago udaberria erromeria batekin hastera baino gauza hoberik.

Endika Alustizaren oroimenezko XI. bola txapelketako

Joan den otsailaren 29an, igandea, jokatu zen Zeraingo bolatoki eraberrituan Endika Alustiza zenaren oroimenezko XI. bola txapelketa. Elurra izan bazen ere protagonista, Zeraina iristea zailduz, 35 bolarik hartu zuten parte txapelketan. Herritarrez gain gehienak gertukoak izan ziren eta segurarrak izan ziren hobekien aritu zirenak. Irabazlea Segurako Jexux Mari Intxausti izan zen, bigarren Zeferino Agirre herrikidea eta hirugarren Antonio Alustiza zeraindarra. Hirurek 36na birla jo zituzten eta desenpatean erabaki zen txapelketa. Konpetentzia handia izan zen, beste hiru bolarik ere 36na birla bota baitzituzten eta oro har maila oneko txapelketa izan zen.

Azkenaldian emakumeak ere protagonista dira Zeraingo bolatokian. Hainbat emakume herritar gogor ari da bolatan ikasten eta txapelketa honetan ere gizonekin batera aritu ziren. Maila oso onera ari dira iristen bolari hauek eta aipagarria da beren ahalegina eta enpeinua. Azken tiraldi honetan emakume onena Aitziber Makazaga herritarra izan zen 34 birlarekin eta irabazleak baino bi gutxiago jo zituen.



Eskolako haurren inauteriak

Inauteriak aspalditxo pasa ziren, baina Zerainen ere utzi zuten beren arrastoa. Zeraingo Herri Eskolako haurrek inauteriak ospatu zituzten otsailaren 23an. Festa arratsaldean egin zuten Eliza atarian. Bertan, antzerkitxo bat eskaini zuten gerturatu ziren sendiko eta herritarrentzat eta ondoren merienda ederra eta musika egon ziren ondo pasa nahi zuten guztientzat. Eskolako haurrez gain, beste herritar batzuk ere moztortu ziren eta denera jende dezente bildu zen festara.

Arropa zaharrak biltzeko kontenedorea

Joan den hilaren amaieratik, martxan da Zerainen ere arropa zaharrak biltzeko zerbitzua. Horretarako arropak botatzeko kontenedore bat jarri da autobus parada ondoan. Edozein arropa mota bota daiteke bertara, baita etxeko izarra, manta eta antzekoak ere. Ez du inporta botatuko jantzi eta hondakinak oso zaharrak badira ere, dena aprobetxatzen baita. Inolaz ere bota ezin direnak alfonbrak, moketak, hautsa kentzeko trapuak eta horrelakoak dira.

Arropa zaharren birziklatzea eta berrerabilpena du helburu martxan jarri den proiektu honek. Horretarako hautaturiko enpresa Oldberri, S. Coop. da. Enpresa hau Karitas sarearen baitan sortutakoa da eta behartsuenei laguntzea du helburuetako bat.

Biltzen diren arropak erabilera ezberdinak izango di-

tuzte. Batetik arropak birziklatzen dituzten enpresa handiei salduko zaizkie eta bestetik, egoera onenean dauden arropak egokitu eta behartsuenei emateko edo merkataritza justuko bigarren eskuko dendetan saltzeko erabiliko dira.

Mandioa irekita

Oporraldiaren ondoren, berriz ere irekita dago Mandioa taberna martxoaren 2az geroztik.

Elurra gure artean

Aspaldiko partez elurte ederra izan genuen gure artean otsaileko azken asteburuan. Eragozpenak eragozpen, irudi ederrak ikusi ahal izan genituen Zerain aldean. Oztipoak gainera, ez ziren hain besterainokoak ere izan, Udalak jarritako traktorea etengabe aritu baitzen bideetan pasoa zabaltzen.

Ion Muñoa



Jende uholdea autoen ikuskizunaren aiduru

Elurragatik astebete atzeratu bazen ere, azkenean iragan igandean lehiatu zen Gabiria-ko rallysprintaren seigarren edizioa, martxoaren 7an. Automobilismo denboraldiari irekiera eman zitzaion jada egutegian klasiko bihurtu den proba honekin, eta zaleek uholdean jo zuten bertara, nahiz sarrera zortzina euro kobratu zitzaion.

Lehia bizia agintzen zuen partehartzaileen kartelak. Iragarrita 71 talde bazeuden ere -inoizko kopururik handiena- azkenean 63 autok hartu zuten irteera, txapelaren borrokarako sei edo zazpi faborito tartean. Erlojupeko lau zati, 26 kilometro eta lau orduko jarduna, ordea, 52k besterik ez zuten osatu, hori bai, zenbait bidezatitan ikuskizun polita eskainiz.

Lehenengo igoeran istripu batek lasterketea eten zuen. Maerdiko bidegurutze parean auto bat jende artera sartu zen eta hiruzpalau ikusle zaurituta anbulantzian eraman behar izan zituzten erietxera. Arratsaldeko lauso bakarra izan

zen, zorionez, eta aparteko gora-beherarik gabe jarraitu zuen karrerak.

Azken sailkapenean Ramon Apalantza errezildarra atera zen garaile, 79,30 km/h-ko batzbesteko abiadurarekin, aurreko edizioetatik nabarmen beherago. Honela geratu ziren lehen postuak:

1. Ramon Apalantza (Mitsubishi Evo VI): 19min40,400seg
2. Luciano Arrabal (Mitsubishi Evo V): 05,600era
3. Xabier Alustiza (Seat Ibiza): 19ra
4. Jose M. Otxoa (Citroen Saxo VTS): 38,600era
5. Rafa Ateka (Citroen Saxo VTS): 44,400era

Jende andana erakarri zuen goiz-goizetik auto lasterketak, eta pisuzko zita bilakatzen ari da Gabiriakoa arloko egutegian, erreferentzi bateranoa Euskadin barrena, eta eskala handiko automobilismo puntu bakarra Goierriin.

Aimar Maiz



*Esne gain
tarta
marrubixoa-
rekin
badirudi ere,
ia estali
zituen
elurrak
txikienak.
Argazkia:
Eneritz
Gorrotxategi*

Elurraz aseta

Otsaileko azken hiru egunek pixkaterako elur goseak ase zituzten inguruotan. Geratu gabe asteburu guztian malo-malo egin ostean 30-40 zentimetroko estalki zuria utzi zuen, egunetarako utzi ere. Elurte ondorengo izotzak ia astebetean mantendu du herrigunea zuri. Argindarrean eta errepideetan eragozpenak salbu, ederki gozatu zuten herritarrek.

Bertsolaritza

Gaiean dugun asteburuan hasiko da Osinalde bertso sari-keta ibilian herrian bertan. Bihar larunbata, martxoaren 13, Aztiriko elkartearen saioa egingo da sei bertsolari hauekin: Miren Artetxe, Unai Muñoa, Xabier Astigarraga, Oskar Alberdi, Aritz Aranburu eta Iñaki Iturrioz. Afaria iluntzeko 8:30etan izango da, eta ondoren saioa.

Bestalde, aurreko ostiralean, hilaren 5ean, Hernaniko Iraulio Panttaleone bertsolari taldeak ikuskizun bitxia bezain atsegina eskaini zuen herrigunean. Bertsozko antzerkia atondu zuten Ostatu aurrean, eraikuntza enpresa bateko gora-beherak antzetzuz. Ondoren kantu-afaria egin zen Osinalde elkartearen, 80 bat lagun bertan zirela.

Labur-labur

● 26. mus txapelketa jokatu zen Osinalde elkartearen lehen-go larunbatean, martxoaren 6an. 21 bikotek parte hartu zuten eta hona ohorezko postuak: 1. Joxean Ormazabal "Mapa" eta Joxe Luis Bidegain; 2. Josetxo Sagarna eta Arantxa Bidegain; 3. Beñat eta Gorka Maiz; 4. Joxe Maiz eta Felipe Altuna.

● Hauteskunde igande honetan, martxoaren 14an, hauteslekua ohi bezala udaletxeko batzar aretoan jarriko da, goizeko 9etatik arratseko 8ak bitartean.

● KZguneko mintegian ostegun hauetan egongo da tutorea: martxoaren 18an 16:00etatik 20:00etara eta apirilaren 2an eta 16an goizeko 9etatik 13:00etara. Maria Albisu da arduradun berria.

Ingurune paregabea eta erosotasun guztiekin etxebizitzak salgai MUTILOAN

2 - 3 - 4
logela



*Etxebizitza unifamiliarrak
eraikitzeko lurzorua salgai*


943 731 214



Teilatuen egiturak
Portxeak
Aleroak
Balkoiak
Eskailerak
eta abar



Zorua eta egurrezko egiturak
Merkatuko aukera osoa
Egin eta jarri egiten ditugu



Gurutze errepidea

ARRONDO GABIRIA

☎ 943 88 59 50 - 943 88 59 54



Kz gunea martxan

Martxoaren 8an ireki zen Kz gunea, udaletxeko batzar aretoan. Interneta herritar guztien eskura da jartzea da Kz gunearen helburua. 16 urtetik gorako edonorentzat dago irekita. Horretarako, ordenagailuak herritarren erabilerrako prestatu dira. rratsaldeko 4etatik 8etara egongo da zabalik Kz gunea eta bertan Karlos Bueno egongo da ikastaroen eta Kz gunearen

inguruko informazio zehatza emateko. Kz 20 orduko ikastaroa eta NagusiWeb (55 urtetik gorakoentzat) ikastaroa antolatu dira. Herritarren beharretara eta ordutegietara moldatutako ikastaroak izango dira. Kz guneko telefono zenbakia 943881712 da eta udaletxeko 2. solairura hurbil zaitezke zerbitzuak erabiltzeko edo zalantzak argitzeko.



Elurtea

Otsailaren 27an hasi zen elurteak eragozpen bat baino gehiago sortu du herrian. Herriko haurrak ez dira haserre egongo, ostiralek asteazkenera arte eskolara joan gabe egon baitira. Errepideak irekitzen aritu badira ere, okinik esaterako ez da iritsi herrira. Azken urteetan egindako elurterik handiena izan da. Hori bai, paisaia ederraz gozatzeko aukera ere izan da.

Arropa zaharrak biltzeko edukinontzia

Beste edukinontzien ondoan, beste berri bat gehiago jarri du Sasieta Mankomunitateak. Arropa zaharrak biltzeko edukinontzia da. Jantzeko era guztietako arropak, mantak, maindiak, kortinak, toailak, oinetakoak, gerrikoak, poltsak... bota daitezke bertara. Hori bai, poltsa itxietan bota behar dira. Arropa zaharrenak birziklatzeko erabiliko dira eta gainerakoak, Karitasen bidez, beharrik handiena dutenen artean banatuko dira.



Sukaldaritza ikastaroa



KZ guneko martxoko ikastaroak

Otsailean goizeko ordutegiarekin ibili ondoren, martxoan goizekoaren txandan izango da. Kurtsoak goizeko 9etatik eguerdiko ordubatera izango dira.

20 ordukoa izaten da interneten oinarritzko ikastaroa: martxoaren 1etik 15era, 9:00etatik 13:00etara eta martxoaren 16tik 30era, 9:00etatik 13:00etara

10 ordukoa, berriz, 50 urtetik gorakoentzat oinarritzko ikastaroa: martxoaren 22tik 26ra 9:00etatik 13:00etara.

Lehenengo alean esan genuen sukaldaritza ikastaroak martxoaren 13 arte iraungo zuela, baina elurra dela eta ez dela, egun bat galdu zuten otsailaren 28an. Galdutakoa erreku-peratu asmoz, martxoaren 27an izango da azken saioa. Beraz, martxoak 13 eta martxoak 27 geratzen dira kurtsoa amaitzeko.

Zuhaitz eguna

Martxoan sartu gara, eta laister batean iritsiko zaigu udaberria ere. Hau guztia aprobeztatuz, datorren larunbatean, hilaren 13an, zuhaitz landaketa egingo da herrian. 10 zuhaitz inguru ekarri dira, herriko hainbat lekutan landatzeko.



Goierritik mundura

Goiturrek joan den martxoaren 5ean mapa eta gida-liburu bana aurkeztu zituen, herri honen interes gune nagusienekin. Lan hau, "Goierri parke natural eta kulturala" lemapean editatua izan da. guzti honekin, turistei eta orohar gurera inguratzen diren bisitari guztiei Goierri aukeratzeko dituen abantailen berri ematea da.

Aurkezpenean, Koro Garmendia Turismo Sailburuordea, Anjel Irastorza Diputazioako Kultura Zuzendaria, Bittor Oroz Ataungo alkatea

eta Goiturreko Zuzendaria eta eskualdeko hainbat alkate eta zinegotzi egon ziren.

Turistak edo enpresetako bisitariak, Goierriko informazio guztia aurkituko du gida bakar batean. Goierriin egin daitezkeen ibilbideak, eskualdeko elementu eta argumentu turistiko adierazgarriak, turismo aktiboa, festa, gastronomia, ohitura, tradizio, museo, ostatu, turismo bulego, interpretazio zentru, etabarrei buruzko informazioa eskaintzen da. Argitalpena hiru hizkuntzatzen eskuragai dago: euska-

Munduko sokatira txapelketa

Otsailaren 19tik 22ra bitarte Glasgown jokatu den Munduko VIII.goma gaineko soka tira txapelketan, euskal tiralariak ahalmentsu agertu dira. Horien artean, Badaiotz talde gasteiztarra azpimarratu behar da, emakumezkoen 520 kilotan urrezko bi domina lortu baitituzte. Talde honetan, herriko tiralari bat dugu, Ruth Kaiero.

Kz gunea

Udal Liburutegian martxan dagoen Kzgunea astelehenetik ostiralera arratsaldeko 5etatik 7etara eta larunbatetan goizeko 10etatik 12etara dago irekita. Tartean Maria Albisu tutoreak bisitak burutzen ditu noiz-behinka. Martxoaren 10 eta 24 izango dira hurrengo bisitak hurrenez hurren, asteazkenetan arratsaldeko 4etatik 8etara. Gogoan izan, bisita hauek tutoretza orduak direla, interneten inguruan zalantzaren bat izanez gero argitzeko aukera ematen da.

Ordenagailuez gain, liburutegian makina bat liburu irakurtzeko aukera paregabea dute herritarrek. Otsailean eleberrri gehiago sartu dituzte, hala nola: Soinujolearen semea (Bernardo Atxaga), Manila konexioa (Jon Artetxe), Kilkerren Hotsak (Edorta Jiménez), Bi dorreak. Eraztunek jauna eta Erregearen itzulera. Eraztunen jauna (J.R.R. Tolkien), La Comunera (Toti Martínez de Lezea)...

Doltza Barandiaran

ra, gaztelania eta katalanean.

Goiturrek esku-liburu hau Goierriko parte hartzen duen azoketan banatuko du. Behin bisitariak, gure eskualdera gerturatzen direnean, orduan eskuratu ahal izango dute turismo mapa berria, informa-

zio praktiko eta zehatzagoa eskainiko diena. Adibide bat ematearren, herri guztietako museo orduetegi eta salneurriak azaltzen dira, informazio-bulegoen kokapen eta ordutegia... mapa hau euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da.

'Pakita' antzezlan

Kutxaren bitartez, 'Pakitaren-tzat bakarrik' antzezlan ikusteko aukera izango da martxoaren 26an, Antzokian, gaueko 10,15etan.

Mendi irteera

Gailurrerantz mendi elkarteak martxoaren 21erako mendi irteera antolatu du Artetako iturburura. Irteera, goizeko 8,30etan, herriko plazatik.

Saturdiko festa

Urtero bezala Pazkoaren bigarren egunean, aurten apirilaren 12an, Saturdiko festa ospatuko da. Festa honen antolakuntzarako animatuko diren auzokideak eta herritarrak bildu nahi dituzte udalak, festa honi buruz hitz egiteko (egitaraua, taberna, bazkaria, e.a.). Datorren ostegunean, martxoaren 18an, arratsaldeko 7,30etan kultur etxean izango da bilera.

Koxkane bota dute

1968 arte taberna izan zen

Bola

Goierriko bola txapelketa. Otsailaren 28an, Idiazabalen Xepeño Agirrek irabazi zuen (46 birla).

Endika Alustiza memoria-la. Otsailaren 29an, Zerainen Jexux Mari Intxaustik (36 birla) irabazi zuen. 2. Xepeño Agirrek egin zuen.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Errejonak: Segura 3-1 Ordizia. **Jubenilak:** Hernani 2-2 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 0-9 Bergara.

Asteburuan etxean: Infantilak: Aizkorri - Uröla (zapatuan, 11:00etan). **Jubenilak:** Segura - Orioko (zapatuan, 16:00etan).

Labur-labur

● **Kutxa.** Altzariak ekarri zain daude Kutxa berriua irekitzeko.

● **Eliza.** Ase Santuko elizkizunak bertan egiteko martxoaren amaiera alderako amaituko dituzte obrak.

● **Eginkizun anitzeko peoia.** Lau herritarrek eman dute izena udalak 6 hilabeterako eskaini duen lanposturako. LKS enpresak banan-banan elkarriketatuko ditu hautagaiak egun hauetan.

● **'Baserriko produktuen elaborazioa'** ikastarorako 17 herritarrek eman dute izena. Atzoko bileran ziren egunak eta ordutegiak zehaztekoak.

● **Zuhaitz eguna.** Martxoaren 7an herri eskolako ikasleek 15 lizarrondo eta beste hainbat gerizondo landatu zituzten Maduran, Zubihandiko bi aldeetan.

● **San Joanak.** Festak antolatzeke lehen bilera martxoaren 4an egin zen. Ekainaren 23tik 27ra izango dira. Dan-

Erortzeko arriskuan zegoela eta, otsailaren 25ean hasi ziren kale Nagusiko 17. zenbakiko eraikina botatzen. Bertan, 1968ko udaberrira arte, Koxkane izeneko taberna egon zen. Etxe horretan jaio-tako Ramon Mari Telleriak eta taberna ezagutu zuten auzotarrek zenbait azalpen eman digute. Hauek, Ramon Mariren gurasoak nahiz bere aitona-amonak tabernaren jabetzan ezagutu zituzten.

Lehen kafetera eta telebista

Koxkane izan zen kafetera eta telebista ekarri zituzten herriko lehen taberna. Gazteen egonlekua ere bazen. Sonatuak omen ziren bertako futbolin partidak. Baserriarren ermandadeko bileragunea ere bai. San Bixente, Santiago eta Santo Tomaseko ganadu perietan bazkariak eman ohi zituzten. Baina eliza inguruan egonik, meza aurre eta ondorenak ziren taberna gehien girotzen zutenak.

tza txapelketa, aurreko aste-an. Hurrengo bilera, martxoaren 17an, 19:00etan.

● **Sevatur.** Donostiako Kur-saal jauregian martxoaren 11tik 14ra eskainiko diren 400 eskaintza turistiko baino gehiagotan, Goierrikoaren barne, Segurarena ere izango da bertan.

● **Hauteskunde mahaiak.** Martxoaren 14ko hauteskundeetan 'A' mahaiari Juan Carlos Garmendia, Arantxa Etxeberria eta Mikel Alonso egongo dira. 'B' mahaiari, Iñaki Ormazabal, Mikel Zubeldia eta Jose Mari Suarez.

● **Kirol eskolarra.** Saskibaloia: mutil alebinak, San Benitokoen aurka, zapatuan 12:30ean, Baratzen. **Mendi**

5:30erako zabalik

Igandeetan, herritarrek goizeko 6etako mezatarra joan aurretik zabaldu behar izaten zuten taberna. Hala ez bazen, aldaba joka hasten omen ziren baserrietatik etorriak nahiz kaletarrak. Ondoko panaderian egin berria zen opil-erosita, uxualarekin (anixa) hartzeko ohitura omen zuten denek goizaldean.

18 taberna

Koxkaneren garaian, herrian

18 taberna zireneko garaia ezagutu zuten herritarrek. Horietatik 13 herri barruan eta 5 kanpoaldean. Gaur egun, 6 daude.

Kale-baserria izana

Herriko beste zenbait etxe bezala, Koxkane ere kale-baserria izan zen. Etxearen atzealdean, karkaba aldera, behiak, txerriak eta oiloak edukitzen zituzten. Esnea saldu egiten zuten. Horretaz gain, ganaduentzako tresna eta osagarriak ere saltzen ziren. Bolazaleek ere gogoan dute bolalekuko bola (karkabako askan) eta birlak bertan gordetzen zirenekoa.



Ramon Mari Telleria bere gurasoekin eta auzoko hiru neska, Koxkane tabernako leihoan, 1955ean.

irteera: martxoaren 14an, ibilaldi neurtua Beasainen. Irteera, 8:30ean plazatik.

● **San Jose kofradia.** Martxoaren 19an, komentuko meza aurre edo ondorenean

egin beharko da ordainketa.

● **Lore azoka, Agustin Legorburu eta Iparra-Hegoa-ri** buruzko informazioa 12, 14 eta 15. orrialdeetan.

Joseba Telleria



Martxeliño eta Nati, ezkontza egunean.

Urrezko ezteiak

Malkorra baserriko Martxeliño Telleriak eta Nati Agirrek, ezkondu zireneko 50. urteurrena ospatu zuten familiarte-an pasa den otsailaren 29an Liernin. Martxeliño eta Nati 1954ko otsailaren 25ean ezkondu ziren, goizeko 10etan, Segurako elizan. Ospakizun bazkaria Malkorra jatetxean izan zuten.



VII. Argi Berri saria jokoan

Gabiriako Osinalde Sarirako baliagarria izango den kanporaketetako bat Ordizian jokatuko da aurtengoan ere. Martxoaren 27an izango da bertsolari gazteekin zita Argi Berri Elkartearen. Protagonistak 6 bertsolari gazte eta helburua zehatza, Gabiriako finalerako jokoan izango diren bi txartelak eskuratzea. Tartean bertsoez gozatzeko aukera izango duten afalkideak.

Osinalde Saria antolatzen hasi zela pasa da makina bat urte. Sortu, bertsolari gazteei aukerak emateko asmoz sortu zen eta saio bakarrean egiten zen hasiera batean. Orain, ordea, bertsolaritza sasoi onean dela ikusita, bertsolari gazte mordoaren artean aukeratu behar eta orain 7 urte hiru kanporaketa egitea erabaki zen.

Esan bezala Argi Berri Elkartearen jokatuko da martxoaren 27an horietako bat. Bertsolariak hauek izango dira: Agin Rezola astigarratarra, Iñaki Viñaspre gasteiztarra, Oihana Bartra bilbotarra, Antton Fernandez urretxuarra, Beñat Lizaso azpeitiarra eta

Gorka Iribar zumaiarra. Aurkezlea Igor Eguren izango da. Saioaren aurretik afaria egingo da eta bertan parte hartu nahi duenak eskuragarri ditu txartelak Bustuntza auzoan dagoen Iñaki Tabernan. Apirilaren 17an Gabirian jokatuko den finalean parte hartzeko bi txartelaz gain, VII. Argi Berri saria ere jokoan izango da. Sari hau saiora ingurutatuko guztien botoak aintzat hartuta banatuko da.

Kulturako dirulaguntzak

Udaletik jakinera eman dute subentzioa jaso nahi duten kultur elkarteek apirilaren 30era bitarteko epea izango dutela eskaera egiteko. Eskararekin batera iazko memoria eta aurtengo aurrekontu eta ekintzen zerrenda aurkeztu beharko ditu.

Pakita

Antzerki garaiaren barruan 'Pakita' lana aurkeztuko du gaur, hilak 12, Txalo taldeak. Saioa gaztelaniaz izango da, Herri Antzokian 22:15ean. Sarrerak 7 euro balio du.

Hegats igeriketa Majorin

120 igerilari inguru espero dira datorren martxoaren 20an Majori Kiroldegiko igerilekuan. Nazioarteko IV. Hegats igeriketa txapelketa jokatuko da bertan eta oraingoan ere espainiar estatuko igerilari onenez gain Europako onentsuenak ere etortzekoak dira. Tartean iazko txapeldunak izango dira, Erven Morice eta Florence Izard frantziar estatuko ordezkariak. Frantziarrez gain alemaniar selektzioako hiru igerilari ere Ordizian izango dira. Katalunia, Valentzia, Balear Uharteak, Nafarroa, Gipuzkoa eta Galiziako selektzioek ere hartuko dute parte.

Txapelketak bi jardunaldi izango ditu, goizez bata eta arratsaldez bestea. Probak, berriz, hauek: goizez 50 urazpian, 800 urgainean, 100 urgainean eta 400 urazpian eta arratsaldean 50 urgainean, 400 urgainean, 100 urazpian eta 4x100 erreleboa. Garaileak CMAS taularen bidez puntu gehien jasoko dituztenak izango dira, hau da, taularen arabera denborarik onenak egiten dituzten gizonezko zein emakumezkoa.

Triatloi taldea

Beasaingo triatloi taldearekin elkartu berri da Ordiziakoa. Honela Goierriko Triatloi Taldea osatu dute eta dagoeneko denboraldia hasi dute. Guztira 30 bazkide dira momentuz eta egun babesle bila dabilta.

San Jose jaiak

Martxoaren 19a iristearekin batera San Jose Zahar Etxeko eta Jubilatutako jaiak iritsiko dira. 15etik 25era bitartean eskulanen erakusketa izango da, martxoaren 17an 17:30ean San Jose abesbatzaren saioa izango da Zahar Etxean, ostegunean 18:00etan jailadia, sari banaketa eta Umore Ona abesbatzaren saioa. Ostirala, hilak 19, egun handia izango da. Goizean txistulariek diana joko dute, ondoren Beti Argi musika taldearen eskutik kontzertua izango da Enparantza Nagusian eta ondoren bazkaria Jubilatuen Etxean. Ekintzekin amaitzeko Urrup antzerki taldeak 'El aniversario' lana antzeztutko du martxoaren 24an, 18:00ean.

Elkartearteko musa

Martxoaren 1etik 12ra bitartean jokoan izan da XXV. Elkartearteko musa. Herriko 9 elkartetako bina bikotek hartu dute parte eta gaur bertan dira finala jokatzeak. Mendizaleak Elkarteari egokitu zaizkio aurtien antolaketa lanak.

Kale berria

Usunbillaga izena izango du hemendik aurrera Gernikako Arbola Pasealekutik aurrera egingo diren etxebizitzak direla eta sortuko den kale berriak.

Aitor Calvillo

Lazkaoko Rwanda taldea

Lazkaoko Rwanda taldeak, martxoaren 5ean, 2003. urteko memoria aurkeztu zuten eta era berean, batera edo bestera proiektu honetan lagundu dutenei eskerrak eman zizkieten. Talde honen buru Leonardo Esnaola da eta berak azaldu zuen Rwandako egoera nolakoa den eta hemendik zein eratako laguntzak eman ditzakegun.

Lehen helburua Lazkaok duen bizimodua eta Rwandak bizi duen pobrezia ezagutzea eta aztertzea da, honen bidez ezagutuko baita benetako errealitatea. Hau behin ondo mamitu ondoren bigarren helburura pasatzeko garaia iristen da; hango egoera hobetzea. Aurten hiru proiektu

eraman dituzte aurrera, lehen, bertako etxebizitzak, ume txokoa eta Giharako eskola.

Etxebizitzak

Etxeei teilatuak eta zoruak egiten, 200 bat lagun aritzen dira. Batez ere adobeak egiten dituzte. Lazkaoko Rwanda Taldeak, zementu zakuak bidaltzen ditu bertara lan horiek egin ahal izateko. Izan ere, Rwandan zementu zaku bat erosteko, hilabeteko soldata behar baita.

Ume txokoa

Eskolara joan gabe kalean hala nola dabilzan haurrak bilatzeko sortu zen 2000. urtean 'Eskolatu gabeko haurrentzat



ikas-txokoa'. Bertan 7 eta 12 urte arteko haurrei irakurtzen, idazten, kalkuluak egiten eta nekazaritzako oinarriak irakasten die. Proiektu honentzat, Olaberriko Udalak 2003. urteko abenduan, 3968,56 euro jaso zituen. Leonardo Esnaolak bideratu du diru hori.

Giharako eskola

Urrestilako Manuel Aizpuru dago bertan. 8 eskolatan 5.400 pertsona ari dira ikasten. Proiektu honetako helburu garrantzitsuena hizkuntza kalitatea hobetzea da. Eskola hartako gelak eta komu-

nak hobetzeko, eta materiala lortzeko, Andoain eta Ataungo udalek dirulaguntza eman dute.

San Benito ikastolak urtean zehar egindako hainbat ekitalditan eskolarako hainbat diru ere lortu da, elkarren arteko konpromisoa dela eta.

Leonardo Esnaolak, laguntza guztiak eskertu eta horrela jarraitzeko deia egin zuen. Bere esanetan, dirua garrantzitsua bada ere, jendearen bihotz ona eta maitasuna askoz ere garrantzitsuagoak dira.

Aitor Tello

Alebin mailan Lazkao irabazle

Martxoaren 4an jokatu zen Goierri mailako pilota txapelketaren finala. Segurako frontoian jokatu zuten Ataungo pilotariaren aurka jokatu zuten lazkaotarrek eta baita irabazi ere!. Pilotari irabazleak ondokoak izan ziren: Oskar Carro, Unai Bereziartu, Unai Garmendia eta Goren Oiartzide.

Erregionalak bigarren

Pasa den astean bina berdindu ondoren eta partiduxarraren ondorioz ezin izan zuten garaipena lortu talde honetako jokalariek. Aste honetan berriz eta 3 aste geroago berriro ere etxean jokatu dute Intxaurren taldearen aurka. Orain igoera postuan daude, sei partiduren faltan. Hauetako lau etxean jo-

katuko dituzte beraz zaleen laguntzak ere bere pisua izango du neurketa bakoitzean. Arratsaldeko 4 izango da neurketa hau.

Eskolarteko ibilaldi neurtua

Amalur elkarteak eta ikastolak antolatutako dituzten mendi irteeren arabera, martxoaren 14an, eskolarteko ibilaldi neurtua izango dute.

Urrezko belarritakoa

Emakumezkoen urrezko belarritako bat galdu da. Norbaitek aurkitu balin badu jar dadila zenbaki honetako jabearekin 943.880997. Saria izango da honen trukean.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI



Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzak salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO



Iñaki Gorostegi aguazila traktorearekin, herriko bideak garbi tzen.

Gaintza ere zuri esnatu da

Otsailaren amaierarako iragarrita zegoen bezala Gaintza ere zuri esnatu zen. Ez otsailan bakarrik baita martxoaren lehen ere. Ikuskizun zoragarria etxetik atera beharrik ez zuenarentzat, lanera joateko autoa hartu behar zuenarentzat ikuskizun zoragarria bai, baina egoera arriskutsua ere bai.

Goierriko herri txiki guztiek bezala gaintzarrok ere baditugu herri handiek ez dituzten bakea, isiltasuna eta paisaia ederrez inguratutik bizitzeko aukera paregabea.

Egoera ez ohikoak eta larriak sortzen direnean ordea, badugu abandonatu samar uzten ote gaituzten errezeloa ere.

Beti gauza eder eta zoragarriak kontatzeko idazten badugu ere oraingo honetan utzikieriak salatzeke egingo dugu. Eta has gaitezen:

Zaldibiatik Gaintzara doan errepidea, oro har, oso egoera txarrean aurkitzen da zoruari dagokionean eta behar den lekuan behin baino gehiagotan salatu badugu ere, gaurdaino ezer egin gabe dago. Gaur egun Gaintzako herrigunean eraikitzen ari diren etxeak di-rela eta zama handiko kamioiak dabiltza gora-behera bidean, egur ateratze lanak ere ugari ari dira egiten asfaltatxoan eta lehendik ondo ez dagoen bidea horiek konpon-tzen dute!

Errepide berean eta Zaldibiako Aranguren baserri inguruan ere badago konpon-tzen ez duten lubizi bat. Bidera jauzitako lurak kendu eta bere horretan uzten dutena. Lubizi honen eraginez Telefonikak duen poste bat ere mugitu da eta egun eta erdi igaro ditugu telefono zerbitzurik gabe.



Emakume langileen eguna

Joan zen larunbatean, martxoaren 6an, herriko Kale-txiki jate-txean bildu ziren herriko 11 emakume. Oso giro onean joan zen ospakizuna. Nahiko jan-edan ondoren kanturako eta solaserako egokiera ere izan zen bertan. Ea! datorren urtean ere beste horrenbeste biltzen diren. Usadio onak gal ez daitezen!

Eta hirugarrenik Gaintzara goazelarik garai bateko kilometro puntuaren inguruan, duela urte bete pasatxo bidea behera erori zen eta oraindik ibiltzeko moduan denez, horrela dago lau seinale jarri eta bere horretan, noiz konponduko zain. 'Etxe handira ez joan presaka' esan ohi da eta ez da gezurra.

Istripu larriren bat gertatzen denean, heriotzen bat edo, denok hasiko gara errudun bila, bitartean ezta mugitu ere.

Gaurkoz nahikoa kexa azaldu dugu. Ea! hurrengoan gai atseginagoekin etortzen garen. Hurrengo arte.



Herrira bidean lubizia izan zen.

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA


**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA

943 88 98 48



ZINEA

GOIENIZ

GOIENIZ:

Martxoak 26: 'El color del paraíso', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

LEGORRETA:

Martxoak 25: 'En la ciudad sin limites', Herri antzokian, 20:30ean.

BEASAIN:

'Unibertsolariak', martxoak 13, Usurbe Antzokian, 17:00etan. Euskaraz.



'El color del paraíso'

Majid Majidi
(Iran, 1999)

Mohammad mutiko itsua da eta Teherango eskola berezi batean ikasten ari da. Udan bere familiarekin itzuliko da jaioterrira. Mohammad oso sentibera eta naturazalea da, izaera gozokoa eta maitagarria benetan. Hala ere, aita berarekin lotsatuta dago eta etxetik urrunarazi nahi du, seme itsua izatea emaztea aurkitzeko oztopo galanta dela uste baitu. Ondorioz, arotz batekin lanera bidaliko du, baina zerbaitek elkartuko ote ditu aita-semeak?

bertsoak

BEASAIN:

Martxoak 18, Usurbe Antzokian, 22:30ean: Andoni Egaña, Jokin Sorozabal, Alaitz Sarasola eta Unai Iturriaga. Ekitaldiaren barruan II. Neguko Bertsopaper lehiaketaren sari banaketa egingo da eta Eñaut Agirrek irabazleen bertsoak abestuko ditu.

GABIRIA:

Martxoak 13, Aztiria saria, (Osinalde sarirako baliagarria), 20:30ean, Aztiri elkarrean. Bertsolariak: Miren Artetxe, Unai Muñoa, Xabier Astigarraga, Oskar Alberdi, Aritz Aranburu eta Iñaki Iturrioz.

SEGURA:

Martxoak 25, Bertso afaria bertsolari arabarrek: Zigor Enbeita, Oihane Perea eta Rikardo Gonzalez de Durana.

antzerkia

BEASAIN:

Martxoak 24, Eskola antzerkiaren barruan, goizeko 9,30etan, Usurbe Antzokian: 'Hitzak patriketan'.

Martxoak 25, Eskola antzerkiaren barruan, goizeko 9,30etan, Usurbe Antzokian: 'Jim, altxor uhartean'.

LEGORRETA:

Martxoak 18, 'Pakita' antzezlan Txalo taldearen eskutik, 22:30ean, Herri Zine-man.

ORDIZIA:

Martxoak 13, Antzerki Garaia: 'Pakita' antzezlan aurkeztuko du Txalo taldeak. Gaztelaraz. Sarrera: 7 euro. Herri Antzokian, 22:15ean.

Martxoak 24, Urrup antzerki taldeak Chejovren 'El aniversario' lana aurkeztuko du, Jubilatuen egoitzan, 18:00etan.



GERTU
enpresa aholkulariak - abokatuak

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO LAGUNTZA-KURTSOA
noiz: martxoak 29, 30, 31
ordutegia: 18:00 - 20:00
izen ematea: 943 16 21 92 (Idoia)

DOHAINIK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

bestelakoak

BEASAIN:

Martxoak 16, Apika Taldearen 'Sex&Rol' haurrentzako emanaldia, Udal Bibliotekan, 18:00etan.

dantza

BEASAIN:

Martxoak 20-21, Aurresku eta Doinu-zahar txapelketa, Usurbe Antzokian. 20an arratsaldeko 4etan eta 21ean goizeko 10,30etan.

mendi irteera

BEASAIN:

Otsailak 29, Beasaingo Mendizaleak: Beasain-San Gregorio-Beasain.

ORDIZIA:

Martxoak 14, Ordiziako Mendizaleak: Eskualdeko haurren ibilaldi neurtua.

Martxoak 21, Ordiziako Mendizaleak: Mutiloa-Zerain-Ordizia.

erakusketak

ORDIZIA:



Martxoaren 26ra arte, Manu Urangaren pintura erakusketak, Barrenan.

musika

ORDIZIA:

Martxoak 17, San Jose abesbatzaren saioa Jubilatuen egoitzan, 17:30ean.

Martxoak 19, Beti Argi musika bandaren kontzertua, herriko plazan, 13:00etan.

ZEGAMA:

Martxoak 16, Tobera Musika Eskolako akordeoi eta txistu ikasleen entzunaldiak, Kultur etxean, 18:30ean.

Martxoak 23, Tobera Musika Eskolako pianoko ikasleen entzunaldiak, Kultur etxean, 18:00etan.

hitzaldiak

SEGURA:

Martxoak 22, Iparra-He-go: Arabaren historia orokorraren aurkezpena. 19:30ean, Kultur etxean.

Martxoak 23, Iparra-He-go: 'Muga arazoa'. 19:30ean, Kultur etxean.

Martxoak 24, Iparra-He-go: 'Garona guztion arazo'. 19:30ean, Kultur etxean.

SEGURA:

Martxoaren 18tik apirilaren 11 arte, 'Baratze kritikoa: elikagaiekin zer ari da gertatzen?' erakusketa, Ardixarra etxean.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta


(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Martxoak 13-14: Atorrasagasti

(Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882938.

Martxoak 20-21: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Beasain erdigunean. 100 m². Garajearekin. 943641638 (Itziar). 21:00etatik 22:00etara deitu.

➡ Lazkaon etxebizitza salgai. 84 m². 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde jarrita eta trastelekua. 676987788.

➡ Etxebizitza salgai Ormaiztegin. 656730669.

errentan eman

➡ Pisua alokatzen da Beasain eta Olaberria artean. Erabat jantzia eta berogailuarekin. 669340218.

➡ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urderraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

elkarbanatu

➡ Beasainen pisu bat konpartitzeko pertsona bat behar da. 943886778.

Garajeak

salgai

➡ Beasainen, Zazpitu-rieta kalean, garajea salgai. 636422879 - 943888920.

➡ Beasainen, bi plaza-ko garajea salgai. 943084505.

errentan eman

➡ Beasainen, garaje itxia alokatzen da Dulce M^a Loinaz etxaldean. 943187768. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Beasainen, garaje bikoitz itxia alokatzen da, Beasaingo Igartzako Usategi kalean. 600329197. 19:00etatik aurrera deitu.

Baserriak

➡ Goierriin baserria erosiko nuke. 656750254.

Lursailak

erosi

➡ Goierriin 4.000 - 5.000 metroko lursaila erosiko nuke. 616698236.

Animaliak

salgai

➡ Seguran, ardiaren ku-poak saltzen dira. 696220099.

Lokalak

errentan eman

➡ Beasain erdigunean, (lehen Notaria zegoen bulegoetan), osasunarekin zerikusia duen jende autonomoarentzat lokalak dauzkagu. 636218240.

➡ Beasainen, lokal komertziala alokatzen da. 133 m²koa. Erdigunean, banketxeen gunean. Edozein negoziotarako egokia. 615787097.

Ibilgailuak

salgai

➡ Peugeot 205 SRD salgai. 5 urte. 665702888.

➡ Nissas Navara Pikad todoterrenoa salgai. 629438800.

➡ Seat Alhambra 1.9. salgai. TDI 110 cv. 99. urtekoa. Gris metalizatu, 7 eserleku, kristal ilunak, ohea montatzeko egitura. 615700511. 17:00etatik aurrera deitu.

➡ Renault Space salgai. Gasolina. Egoera onean. Merke. 629918298.

➡ Seat Ibiza 1.2 salgai. 11 urte. 65.000 pezetan. 605768171. Olatz.

➡ Opel Corsa 1.7 D salgai. 2000 urtekoa. 65.000 kilometro. Extra guztiak. 626452230.

➡ Peugeot 205 salgai. 600 euro. 943886760.

ATAUN

Etxebizitza **bifamiliarra** eraikitza goaz 450 m²-ko **lorategiarekin**

☎ 943 161 032
652 775 741

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behe ez. - BEASAIN

➔ Rover 420 SDI salgai. Egoera onean. 943886760.

➔ Audi S4 salgai. Egoera ezin hobean. 686492674.

➔ Karabana salgai. Egoera onean. 943806566.

Bestelakoak

salgai

➔ Etxeko berrikuntzengatik lanparak saltzen dira. Egoera onean. 943885024.

➔ Gurdi-denda salgai. Abantze eta guzti. 16 m² denera. Bi logela eta erdian sala. Kofre jator bat ere bai. 1700 euro. 605750914 - arrietabeo@euskalnet.net

➔ Bi trikitixa salgai. 943084505.

➔ Seat Leon FRen 17" lllantak salgai, kubiarta eta guzti. Prezio interesgarria. 687638507.

➔ Play Station 1A salgai. Psone-a da. 4 joko, 2 mando eta memoria K batekin dator. Prezio interesgarria. 630485924.

➔ Gurdi-denda salgai. 3 aldiz erabilia. 609986490 - 943331190.

➔ Belar bolak salgai. 943160860.

➔ Baserriko indaba beltza salgai. Ona, garrantia guztikoa. 9 euro kilo. 943883410.

➔ Motokroseko kasakoa salgai. Nex markakoa. Gorria. Erabili gabea, estreinatu gabea. 120 euro. 943027516 - 665734291.

➔ Etxe tresnak salgai: hozgailua edo frigorifiko, garbigailua edo labadora, berogailua, oheak, mesanotxeak, lanparak, sofak... Merkeak. Gaez deitu. 636030300.

➔ Snowboard ekipoa salgai. 55 zm.koko tabla, 42 zenbakiko botak, fijazio automatikoak. Shimano markakoak. 943888601. Gaez deitu.

Lana

eskaerak

➔ Sagardotegi batean, astebukaeretakoko, parilleroa behar da. 943882049.

➔ Lazkaon emakume bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943881658. Gaez deitu.

➔ Zumarragako jate-txe batean esperientzia duen sukaldaria behar da. 639514251.

➔ Ataunen etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 943180403.

eskaintzak

➔ Mutila eskaintzen da lanerako. 943730640 - 639983891.

➔ Emakumezko euskalduna eta esperientziaduna haurrak eta adinekoak zaintzeko prest dago. 605724457.

➔ Orduka, edozein lan egingo lukeen emakumea eskaintzen da. Etxeak garbitzeko, eskailerak garbitzeko, adinekoak zaintzeko... 943085508 - 678781985.

➔ 22 urteko gaztea lanerako prest dago. Jon. 943886778.

➔ Kimikan lizentziaturiko neskak, matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak ematen ditu Beasainen eta Olaberrian, DBH eta DBHOko ikasleei. 699398477.

AMEBI



Sagardotegia

© 943 16 25 23

Zubierreka,9

LAZKAO

LAZKAO

Etxebizitza **unifamiliarra** eraikitza goaz **lorategiarekin**



943 161 032
652 775 741



Eskatu ordue: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

BAKAS

ARROPADENDA

- MISS SIXTY
- LUXURY
- KILLAH BABE
- ...

DENBORALDI BERRIA!

Tel: 943 88 79 92

Garagarza plaza 3

20240 ORDIZIA



Comevasako langileak 1956-57an

Argazkian ageri direnak Aristaingo labea montatzen aritu ziren Comevasako langileak dira, 1956 eta 1957 artean.

Goiko ilaran eta ezkerretik hasita: Avelino Fernandez, Angel Mendizabal, Inazio Mendizabal, Felipe Arza eta Felipe Garcia.

Beheko ilaran: Blas Bravo, Jose Cruz Enparantza, Jose Antonio Bravo, Eusebio Barandiaran, Pablo Escalante eta Migel Mendizabal.

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27 BEASAIN

IBAI-ONDO
AROSZTEGIA

Koltxoak
Somierak

Sofak, altzari mazizoak haritzekoak, gerizekoak, gaztainondozkoak

multisac

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO

LAND-ROVER

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

URBITARTE
tolare
sagardotegia

Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN



GARMENDIA

Teilak eta teilatuak

*Egur tratamenduak
autoklabean*

disainatzen: arymultimedia



TEILATUAK



ZUREZKO EGITURAK



HODIAK

VELUX

Styrodur

isolamenduak



EGUR TRATAMENDUAK

Mallutz Poligonoa, 25 - 26 Pab. | 20240 ORDIZIA | Tel. 943 16 10 32 | Faxe. 943 16 08 42
www.garmendiatejas.com | www.tejasgarmendia.com | garmendia@garmendiatejas.com



Lan bertikalak S.L.

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Ikastek bezala ezagutu gaituzue hainbat urtetan...

Orain, gure irakaskuntza zerbitzuak Ikaskide izenarekin bultzatuko ditugu. Gure lanaren oinarri den ikaslearen kide garelako bere hobekuntzaren bilakeran. Eta zerbitzuak areagotu ditugulako...

Eskola laguntza gai eta maila guztietan: Lehen Hezkuntzan, DBH-n, Batxilergoan, Moduloetan, Zikloetan eta Unibertsitate-mailan.

Tailer ezberdinak: Ingelera gaztetxoentzat, Matematika, Kalkulua, Ortografia eta Kaligrafia. Zerbitzu ezberdinak: Fotokopiagailua, Ordenagailuak eta Internet.

Banakako laguntza, talde txikiak eta neurrirako ordutegiak eskaintzen dizkizugu.

Goierriko Irakaskuntza Integrala, hezkuntzako profesionalek zuzendua.

Ikasteknik

pedagogia zerbitzuak

Ikastek bezala ezagutu gaituzue hainbat urtetan...

Orain, pedagogia zerbitzuak irakaskuntza zerbitzuen gehigarri bezala bultzatuko ditugu Ikasteknik izenarekin. Hainbat ikaslek irakaskuntza zerbitzuez gain pedagogia zerbitzuak behar dituztelako...

Ikasketa arazoak al ditu? Ikasketa metodoei eta ohiturei dagokienean; eskola errendimenduari dagokienean; eta irakurmenari eta idazmenari dagokienean (irakurketa abiadura, irakurketa ulermena edo idatzizko adierazmena).

Arreta eta motibazio eza iragarri al zaio?

Espazio orientazio gabeziak al ditu? Lateralitatea, denbora-sekuenziazioa.

Jokaera arazoak nabari al zaizkio? Hiperaktibitatea, emozioen kontrola.

Banakako laguntza, talde txikiak eta neurrirako ordutegiak eskaintzen dizkizugu.

Goierriko Irakaskuntza Integrala, hezkuntzako profesionalek zuzendua.

Ikaskide
+
Ikasteknik

irakaskuntza eta pedagogia bat direlako.

